Paddy Rekalde

Ragga-ragga dator gaua

narratiba Susa

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:
http://susa-literatura.com/ebook

© 2006 Paddy Rekalde
© edizio honena: Susa
cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu
http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu

Lehen edizioa paperean: 2006ko urria
Edizio hau: 2011ko ekaina

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.com
Webgunea: http://susa-literatura.com

–1–

Zigarro bat isiotu du. Beste bat. Atzo arratsaldean aita lurperatu zuenetik bata bestearen ondoan erre ditu, ohi baino askoz gehiago, gorrotoak horretara bultzatuko balu bezala. Erraiak erretzen dizkio, zigarro muturra gori-gori jarri den moduan. Kanpotik bestelako itxura dauka Joxanek: azoka ondoko erriberako barandan bermatuta itsasadarrari begira dagoen gizon lasai batena, ur zikinak bezain bare. Horrela, beste barik, zigarro bat ezpainetan, ur uherrei begira, trankil antzean, ezer gertatu ez balitz bezala, barrenean gorrotoak erre egiten duen bitartean.

– Azken aspaldian inoiz baino lazun gehiago ikusten da itsasadarrean... Abra aldean lupiak eta karramarroak nonahi. Hala esaten dute behintzat hango bazterretan arrantzan ibiltzen direnek...

Azokako arrain saltzaile bat jarri zaio ondoan, postuan aritzeko amantalarekin eta laneko katiuskekin. Arrain usaina dauka, zer bestela; olagarro pare bat dantzan eduki lezake amantaleko

poltsikoetan. Ordua ikusita, laneguneko gogorrena amaitu berri du, antza, eta kanpora irten da zigarro bat erretzera. Goiz osoa berbetan emango zuen erosleekin, eta hala ere ezin isilik egon. Edonon, edozelan, hitz aspertuan aritu beharra. Lanbidearen ajeak. Saltzaileak arrainei begira egin dio berba, Joxan ere lazunei begira balego bezala. Baina Joxanek ez du ez lazunik ez urik ez ezer ikusten, bestelako irudi batzuk dauzka begi barruetan, hil aurreko egun hauetako aitarena, tristurak zimurtua... eta Jose Luis Agirrerena, ondo orraztua, hobeto jantzia, putakume harro baten trazarekin.

– Orain ez urte asko koipea zen ur hauetan ikusten zen gauza bakarra... eta zarama, hara eta hona zarama, mareak ekarri eta eramandakoa. Besterik ez.

Joxanek irribarre apalez begiratu dio, arrain saltzailea esaten ari dena ulertzen duen keinuaz, bat-bateko hitz aspertua eskertuko balio bezala. Ur gainean dabiltzan lazunei begiratu die; hortxe daude, banaka, hirunaka, seinaka... itsasadarrak eskaintzen dizkien zabor biologiko eta kimikoak jaten, inork harrapatuko ote dituen beldur barik.

Higuingarriak, beti portuetako estolderia inguruan, zulo beltzetatik zer aterako, eta gero usteljana barrura. Gizartearekin alderatu ditu, modu batean zein bestean jendeak gauza bera egiten duelako, bizirauteko ustelari haginka egin. Berak ere bai, zelan ez, eta hasiera batean horrela jokatzeak nazka ematen zion arren, urteen poderioz gogortu egin du bihotza. Horixe pentsatu izan du sarritan, bihotza sikatzen ari zaiola, boxeo borroketan galdutako odola birsortu ez balitzaio bezala, husten ari dela, azken hamabost urte hauetako bizimoduan odola beharrezko izan ez balu bezala... bere inguruan etengabe odola ikusi badu ere.

Orain astebete, aitak aurreneko bihotzekoa izan zuenetik, Joxan konturatu da ez dela hain gogorra, hain sikua, eta bihotzak oraindik eskertzen dituela besarkadak eta laztanak. Boxeo garaietako kolpeak gogoratu ditu, eta haien ostean etorritako urteak, bestelako kolpeak ekarriko zituztenak. Baina aste honetan jasotakoak bizitzako latzenak iruditu zaizkio, alde batetik aitaren heriotza, bestetik Bibi Coruñan laga izana. Ez haiz uste huen bezain gogorra, esan dio bere bu-

ruari, lazunei begira.

– Gogorrak dira arrain hauek, burdinazkoa daukate sabela. Kaka jan eta hil ez. Gasolina botaz gero edan egingo lukete, ardoa lez, bai horixe!

Baranda azpiko ur ilunetatik itsasadarraz bestaldeko erriberara eraman ditu begiak. Leihoak eta balkoi txikiak lerroka dira fatxada berriztatua daukan etxe zahar eta luze batean: landareak eta loreak hangoan, kaxa batzuk ondokoan, umeentzako haize errotatxoa jiraka goikoan, bizikleta zahar bat behekoan... horrela denak, balkoi bakoitza etxe barruko bizitza kontatzen, etxeko bizilagunen gorabeherak iradokitzen. Gogora ekarri ditu Coruñako alde zaharreko kale eta etxeak, adin eta kolore ezberdineko jendea, nahi beste kultura metro koadro gutxitan. Halako batean, emakume beltzaran batek irten du balkoi batera. Ilea atzealdean bildua, praka motzak eta niki tiranteduna. Landareak ureztatzen jarri da. Bibi etorri zaio akordura. Bibi ederra, Bibi epela, Bibi bihotzekoa...

– Ikusiko duzu, laster esango digute lazunak jatea osasuntsua dela, kaltzioa, fosforoa eta ko-

lesterola kentzeko ez dakit zer daukatela, ikusiko duzu... Bisigua desagertu zen kostalde honetan, txitxarroa gero eta gutxiago dago, eta berdela sartu nahi digute, orain hamar urte inork nahi ez zuena... Sukaldari famatuak negozioan sartu eta tira, berdela jan behar! Gogora egizu, hemendik gutxira gauza bera sakatuko digute lazun nazkagarriokin.

Astebete Bibi ikusi barik eta izugarri sumatzen du haren falta, telefonoz egunero deitzen badio ere.

– Zelan hor? –galdetzen dio Joxanek.

– Ondo; baina badakizu, egunotan ezin ohea berotu –erantzuten dio, eta barre egiten du.

– Berba egidazu, laztana, nahi duzunaz...

– Zer entzun nahi duzu ba?

– Berdin dit... egidazu berba Coruñako itsasoaz... zeure ahotsa entzun nahi dut, besterik ez.

Aitaren ondoan eman dituen egunetan ere Joxanek beti bezain atsegin egin dio berba Bibiri, dena ondo balego bezala, aitaren bihotzak azkena eman behar zuela jakin arren. Bibik ondotxo zekien kontuak ez zihoazena bide zuzenean, Joxanen ahotsa gezurrezko lasaitasun batera be-

hartua igartzen zuelako. Eta are gezurrezkoagoa herenegun aitaren heriotzaren berri eman zionean.

– Nahi duzu ni hara joatea?

– Ez, Bibi. Gertatu behar zuena gertatu da. Oso mingarria izan da, baina ondo nago.

– Noiz etorriko zara?

– Bueno, hemen agiri batzuk konpondu, amarekin egun pare bat eman... eta itzuliko naiz.

– Joxan...

– Zer...

– Beldur naiz.

– Ez daukazu zertan kezkatu. Egun pare batean hortxe izango naiz zure ondoan.

– Aitarena ez duzu hara joateko arrazoi bakarra izan...

– Egun pare bat eta kito.

– Joxan...

– Zer...

– Ez dakit zu gabe bizitzen.

– Gauza bera diotsut... badakizu.

– Xanpain hotza eta nire ezpainak zain dituzu...

– Txakolina eramango dut.

– Nahi duzuna.

– Txakolin hotza, bai, han egonda ere hemengoaren beharra dut eta.

– Nahi duzuna, coraçao, baina itzuli agudo.

– Cesaria Evoraren ahotsa aditzen dut zure atzean...

– Saudadea... gure mornak entzuten ari naiz.

Nork bere sorterriaren beharra dauka edonon egonda, pentsatu zuen Joxanek.

– Itzul zaitez, Joxan, mesedez.

Musu baten hotsa izan zen azken agurra.

–2–

Neoizko argiak erdi zintzilik
daude taberna gainean
urratu den, aurpegi den
pareta gorrian.
Zubiak gora zutitzen ziren
Portsmoutheko ontzientzat
lehen «euskalduna», gaur palazioa
eta biharko laino beltzak.

Arratsaldeon lagunok! Ongi etorri gaur ere Txirene irratia sintonizatu duzuenoi! Eta sintonizatu ez duzuenoi... zuentzat kalte! Zer esango diegu ba?

Beti bezala, irratsaio honen hasieran *Zaharra zara Bilbo* kantuaren musika, Gariren ahotsa... Sintonia itzela, ez duzue uste, txirenetarrok?

Zaharra zara Bilbo
Zaharra zara

Aitortu behar dizuet: inoiz baino gehiago kostatu zait irratira heltzea. Ez dut ukatuko bart gaueko erretirada luzatu egin nuela... berbetan-berbetan azken taberna itxi egin genuela, eta hortik gaurko ajea, gaurko nekea, gaurko ezina... honantz etortzean berunezko zapatak eta prakak neuzkala pentsatzeraino... Ez da harritzekoa, kalean 33 gradu ditugu! Edonor akabatzeko moduko 33 gradu eguzkitan! Bero sapa itzela, Atxuriko trenbideak urtzeko lain, itsasadarretik marrazo erraldoi tropikalak sartzeko modukoa... Aitzakia ona hozkailuko garagardo poteak geldi-tu barik ateratzeko... Ados gaude, ezta, entzuleok? Topa!

La Vieja sartu da Nerbioi erriberan
oinak ur beltzetan, loreak baineran
mozkortzen nauzu ta ezin zaitut edan.

Mikroaren aurrean jarri aurretik gaurko prentsari begiratu arin bat eman diot, elkarrekin igarotzeko ordu batzuk dauzkagu eta, zelan ez, albiste batzuk izango ditugu hizpide. Zoritxarrez berri berezirik ez, denak ohikoak: hemengo

bakea topatzeko betiko hamaika ekuazio ezberdinak, futbol arazo tragikomikoak, gure sukaldarien nazioarteko arrakasta, EITBren audientziaren gorabehera eternalak, Bushen harrokeria errepikatuak, Bidasoa aldeko talibanen egoskorkeria, ez dakit ze banku-kutxak ateratako literatur bekak eta sariak... Egunerokoa, ikusten duzuenez.

Udalaren beste erokeriaren bat eskertuko genuke barre apur bat egiteko... ez dakit, zaldi lasterketak egiteko kristalezko plataforma erraldoia ipini nahi dutela itsasadar gainean, Guggenheim paretik Areatzako zubiraino... Udaleko handikien beste handikeria baten zain gaude!

Zaharra zara Bilbo
Zaharra zara

Tira, ez naiz luzatuko gaurko aurkezpenean. Badakizue, egunero bezala denetik jorratuko dugula, hirian eta kultur arloan hurrengo egunetarako programatuta dauden kontuak, erreportaje laburrak, zuzeneko elkarrizketa bat, literaturaren gaineko gazi-gozoak eta azken liburuei bu-

ruzko berriak, auzoetako katramilak... eta batez ere zuen deiak, entzuleok! Eta koktel honen tartean... gure musika, giro sargoritsuari ezin hobeto jarria: ragga, dub, jungle, reggae gozoa... jesarrita ez bazaudete mokorrak mugiaraziko dizkizuen musika... Txirene irrati librea hemen eta orain! Ez amatatu! Jarrai egizue gurean!!!

Neoizko argiak erdi zintzilik
daude taberna gainean
egin nazazu zurea
kantak dirauen artean.
Gerritik heltzen ondoen dakien
bero luzearen jabe
guapa etorri, irri batekin
ziurtatuta ez al gaude?

–3–

Txakolin hotza, bai, oraintxe botila oso bat hustuko luke gustura Joxanek, Bibiren ahotsa gogotik oraindik kendu barik. Atzean entzundako klaxon zaratak errealitatera ekarri du. Ez txakolin freskorik ahoan, ez Bibi aldamenean.

Itsasadarraz bestaldeko balkoietara enfokatu ditu begiak, eta lehengo emakume beltzarana ikusi du. Landareak ureztatuta, barrura sartu eta berriro agertu da zigarro batekin. Zigarroa ezpainetan duela atzerantz orraztu du ile mataza. Horrela ezagutu zuen Bibi, Joxan Vagalume pubera sartu zen lehenengo gauean. Baziren ordu batzuk Susorentzat aurreneko «lana» egina zuela. Susok –orduan nagusi berriak– gustuko zuen berba erabiltzearren: «kaleko abokatu lana», alegia, bizkartzaina, matoia... legez kanpoko arazoetarako morroi ukabil gogorren jabea.

Arratsalde hartan Neira gimnasioan zegoen Joxan, egunero bezala. Lolo zaharra, patu txarreko boxeolari izandakoa eta orduan bertako garbitzaile eta denetariko morroi zurruteroa, Joxa-

nengana hurreratu eta kanpora joateko xuxurlatu zion.

– Suso daukak zain. Ez zidak zer nahi duen esan, baina...

– Lasai, Lolo, hortik aurrera kontua nirea duk –erantzun zion Joxanek txamarra janzteaz batera.

Albo batera utzi zituen gimnasioko ring biak eta zenbait punching-ball dantzari, lurrera begira, entrenatzen ari ziren mutilei erreparatu ere egin gabe, batzuk bere ardurapean zeuden arren. Eskuak txamarrako patriketan sartuta joan zen, Susorekin hitzartuta zeukan «kontratu» berrian lehenengo «lana» egitera. Borborka igartzen zuen odola, arineketan bihotza, arnasestuka gimnasioa atzean uztean. Urduri, adur sikua ahoan, gaztaroko lehenengo boxeo borroka hartan bezalaxe.

– Ez arduratu, lan errazak izango dituk –esana zion Susok hamar egun lehenago.

– Ez diat armarik nahi, ezta hiltzeko kontuetan sartzerik ere.

– Kontu horiek usaindu ere ez dituk egingo. Hire indarra nahi diat, borroketan erakusten huen erasoa, amorru itsua. Hori besterik ez.

– Ez diat inor ez infernura ez zerura bidaliko...

– Ez duk egingo, Joxan, ez duk egingo. Akaso baten bat ospitalera.

– Baina...

– Ondo ibiliko haiz nirekin, ikusiko duk.

Hura guztia etorri zitzaion gogora Joxani segundo gutxitan.

Gimnasiotik kalera irten eta haize zakarrak okotza jasoarazi zion. Hantxe, bigarren lerroan aparkatutako kotxe dotore batean Suso, atzealdeko jesarlekutik deika, kotxe barrura sartzeko keinua eginez.

– Haize heze honek zulatu egingo zizkidak hezurrak –esan zuen Susok, eta Malpicaren sorbaldan eskua jarriz aurrera egiteko keinua egin zion.

Denak martxan, Suso, Joxan eta Malpica gidari zaharra, Coruñako portura.

Hogei minutu geroxeago kontainer eta garabi erraldoien artean zeuden. Joxanek ordurako jakin beharrekoa bazekien. Gutxi eta nahikoa.

Toliño izeneko jonkiak Poliziarentzat txibato lanak egiten zituen noizbehinka. Horrek babesa ematen zion, eta diru apur bat, jakina. Azken aspaldi hartan Susoren negozio txiki pare bat bertan behera gelditua zen Toliñoren mihi diruz koipeztuarengatik. Eta horrela ez zegoen negoziorik egiterik. Susoren abisuek ez zuten ezertarako balio izan; beraz, bestelako neurriak hartzera behartu zuten. Eta horretarako, Joxanen «diplomazia».

– Txamarra berdea daukana –esan zion Susok, jonki itxurako hiru morroi seinalatzen aldi berean.

Toliñok Suso ikusi orduko hanka egin zuen kontainer artetik. Ondo zekien berarengana zihoan morroi handi hark opari mingarria zekarkiona: egurra. Minutu baten buruan, arineketan egin ostean, inoren begiradetatik kanpoko bazter batean harrapatu zuen Joxanek. Zintzurretik sendo heldu eta Susoren «aholkua» bota zion.

– Susoren kontuen gainean ez duk hemendik aurrera ezer ikusiko, ezta txintik ere esango. Aditu duk.

– Nik ez diat... –esaten saiatu zen esaten Toliño.

– Berba bakar bat eta hireak egin dik, portuko karramarroentzako jana izango haiz.

– Ez duk berriro gerta...

Esaldia amaitu aurretik sabelean jo zuen Joxanen ukabilkadak. Aurrerantz makurrarazi zuen salataria, eta orduan bigarren mailukada bat jaso zuen muturrean, belaunez. Sudurra, ezpainak eta hagin batzuk txikituta, belauniko geratu zen Toliño, eskuak musu odolduan.

Atzera begiratu barik alde egin eta Joxan kotxe barruan zen berriro. Apur bat dardaraka eskuak, minbera, jonkiarenganako erruki barik.

– Dena ondo?

– Dena ondo, bai –itsasaldera begira erantzun zion Susori.

– Arazorik emango al ziguk gaurtik aurrera?

– Ez dut uste. Ondo ulertu du.

– Eta hi, zelan?

– Primeran.

– Ez duk ezer gaiztorik sentitzen?

– Ezer ere ez. Jonkiei ez diet amorrurik, baina gorroto ditut txibatoak.

Txerra lagunminaren aurpegia etorri zitzaion akordura, odolez lohitua, beltzune handi bihurtua leherketaren indarraz. Ordutik urteak pasata ere, ezin Txerra memoriatik kendu. Salatari baten mihi luzearen erruz. Urteak, bai, baina ezin burutik kendu. Harrezkero txibatoen irudia estolderietako sagutzarrekin alderatzen du.

– Deputamadre –Susok martxan jartzeko agindu zion Malpicari.

Portu aldeko taberna baten parean gelditu eta biak jaitsi ziren. Malpicari zerbait esan eta alde egin zuen.

– Malpica isila duk. Mutua ematen dik. Ez zidak inoiz trabarik ipintzen. Konfiantza osokoa duk –esan zuen Susok urruntzen ari zen kotxeari begira.

– Isila naiz ni ere.

– Horixe duk euskaldunez dudan iritzia.

– Euskaldunik ezagutzen duzu?

– Gutxi batzuk. Iritzi berekoa zuan gure aita ere. Han, zuenean ibilitakoa, Pasaian, arrantza munduan. Euskaldunek ondo tratatu zitean. Berba gutxiko jendea zela esaten zian, baina be-

tiko lagunak, betiko, bai, eta hori oso inportantea duk niretzat.

– Denetik dago.

– Hirekin asmatu dudala uste diat.

Susok besotik heldu eta taberna barrura eraman zuen.

– Hemen ateratzen ditiztek Coruñako lanpernarik onenak, Sisargas irletatik ekarriak. Eta albariño aparta. Ospatu egin behar diagu.

Afalostean, biak ondo janda eta hobeto edanda, taxi bati deitu eta Vagalume pubera abiatu ziren. Begiak distiratsu, berbalapiko eginda zebilen Suso, zertaz berba egin ondo zainduz. Alkoholak ez zion traiziorik egiten. Gaueko kale artetik igaro ondoren, Vagalume izena iragartzen zuten neoizko argi berdeen ondoan gelditu zen taxia.

– Nirean ez duk joko zikinik topatuko. Hik garbi eta nik ere bai, horixe duk kontu bakarra. Bazakiat oraindik badaukaala zalantza apur bat, baina negozio zikinetan ibiltzen banaiz ere, nire bostekoa benetakoa duk, garbia. Ez zaik damutuko. Itsaso berekoak gaituk... –eta barre batean

hasi zen Suso, Vagalume barruko ilunpera zihoazela.

Barran gintonik pare bat eskatu zuen Joxanek. Vagalume ilun zegoen, putetxe pub guztien moduan. Egunez itxita eta gauez zabalik. Argi laranjak eta urdinak zituen foku txiki batzuekin. Musika-disko zaharreko giroa. Barra luzanga hartan zerbitzari bakarra, gizonezkoa, hara eta hona edariak prestatzen. Barra kanpoan dozena bat prostituta gizonen artean. Baserritar igandearako jantziak, sasiejekutiboak, adurra zerien bi gazte... Batzuk ohiko bezeroak izango ziren. Beste batzuk lehen aldikoak, korta hartako emeak zelakoak ziren ikusi nahian. Denak pozik antzean. Prostitutak, parte guztietakoak, irribarre behartuak musuan, soineko elastikoez, minigonez eta sujetadore koloretsuez, prakamotzez eta brusa finez, denak haragiaren bihurguneak bistan, sexu azoka hartan. Eta gizonezkoak oilartuta, ahalegin barik emakume katxarro haiek ondoan, gainean, gerritik helduta, emakumeak belarrian zerbait xuxurlatzen... euren bizitzako gizona topatu balute bezala. Bezeroak gustura, emakume haiek euren graziengatik hurbiltzen zi-

tzaizkiela sinetsi guran. Sexuaren gezur-plaza bat gehiago.

Joxanek gintonikak ordaindu eta ilunpean atzera egitean, emakume haietako batekin berbetan zegoen Suso. Orduantxe ikusi zuen Bibi aurreneko aldiz. Gintonik bana eskuetan, zigarroa ezpainetan, haiengana jo zuen.

– Vagalumeko ipurtargirik ederrena duk Bibi –esan zion Susok.

Eta Bibik, adats beltz ondulatuak atzerantz eskuez orraztu ondoren, musu pare bat eman zion Joxani. Musuek Bibiren usaina oparitu zioten, eta azal beltzaran haren gozoa.

– Ekarri zigarroa, keak begi eder horiek itxiarazten dizkizu –Bibik ezpainetatik kendu zion zigarroa, astiro, suabe... bide batez laztandu nahi balu bezala.

Zigarroari kalada pare bat hartu eta ezpainetara bueltatu zion.

– Hau morrosko hau niretzat! –esan zuen Marilyn itxurako emakume batek–. Astindu ederra emango diat, sekula ahaztuko ez duana!

– Geldi hor, Rakelita, hau gizontzar hau usaindu ere ez dun egingo, aditu?!

Susok barre egin zuen, tabakoak horiztatutako hagin zikinak agerian utziz. Urrezkoak ziren hagin haietako bi, atzamar potoloetan distiratsu ageri zituen bi eraztunen modukoak.

Hainbat gintonik gehiago ibili zituzten dantzan. Bibi, Joxanekin pega-pega eginda, lapa bat bezala, irribarretsu egon zen gau osoan, gogotsu, gozo, eskua Joxanen gerrian batzuetan, honen saman eta bularrean besteetan. Susok koka lerro pare batez zuritu zituen sudur zuloak, eta gora jo zuen Marilyn itxurako putarekin, logela batera. Joxan eta Bibi barra ondoan geratu ziren berbetan... eta Vagalume itxi aurretik, izara artean amaitu zuten eurek ere.

– Maitemindu egingo zaitut –esan zion Bibik ke, izerdi eta sexu usainak nahasian.

Horrela hasi zen dena. Horrelaxe gogoratu du Joxanek une honetan, itsasadarraz bestaldean dagoen emakume beltzaranari begira dagoela. Bibiren kafe koloreko larruazal epela, adats beltz kirruak, begi ederrak, ezpain haragitsuak... eta haietatik irristatzen zen ahots gozoa. Maitemindu egingo zaitut, esan zion, eta baita gertatu ere. Orain, Joxan erriberako barandan bermatuta

dagoela hori guztia ekarri du gogora, Bibiren faltan atsekabe.

– Nik argi daukat –zigarroaz ke zirimolak egiten jarraitzen du arrain saltzaileak–, jo eta akabatu egingo nituzke lazun higuingarri hauek guztiak, edozelan akabatuta ere, benetan...

Aldameneko gizonaren berbek itzartu egin dute Joxan, Coruñako oroitzapenetatik gaurko egunera ekarri, eta, batez ere, atzotik Joxani buruan bueltaka dabilkion kontura. Patrikan sartu du eskua, ezpainetara eraman berri duen zigarroa piztuko dion metxeroaren bila. Atzamar itsuek, metxeroarekin batera, bestelakoa haztatu dute hor barruan: Susok oparitutako altzairuzko labana automatikoa. Uretara begira zigarroa isiotu eta berriro patrikara itzuli du eskua. Begirada lazunetan jarrita, labanaren inguruan olgetan dabilzkio atzamarrak, altzairu zorrotzaren maitale.

Akabatu, bai, pentsatu du Joxanek, akabatu.

–4–

Giro sargoritsua, hogeita hamabi gradu kaleko markagailu batean. Bero sapak burua kiskaltzen dio Joxani. Mailu etengabea gaurko beroa. Bisera ekarri behar zuen. Ile motzak ez dio asko lagunduko. Izerdiak laban egiten dio burutik behera, samara. Niki horia itsatsi egiten zaio bizkarrean, bigarren larruazal moduan. Noizean behin betaurreko ilunak kendu eta zapi batez sikatzen ditu bekokia eta begitarteak.

Taberna batean pintxo bat jaten hasi da goizean. Ezin izan du. Coruñako portuko txatarra guztia jan izan balu bezala zeukan sabela. Barreneko egonezinak korapilatu egiten dizkio tripak, eta jateko gogoa kendu dio. Ez, ordea, erretzekoa eta edatekoa. Beroak zerbait freskoa eskatzen dio: garagardo apartsu bat; gorrotoak zerbait gogorragoa: Ourenseko oruxoa, portuko whiskeya... besterik ez bada gintonika izotz mordoaz. Berdin dio zer. Betaurreko ilunak kendu eta berriro zapiaz sikatu du bekokia. Gehiegizko argiak begiak itxiarazi dizkio. Ezpainak mihiaz

bustitzen saiatu da, baina likatsua da adurra. Gintonika eta taberna baten gerizpea izango dira laguntza bakarra eguzki kabroi honen azpian. Anjelen tabernara abiatu da. Zubia igaro eta hortxe bertan dago, gertu. Urteroko bisita zor dio, eta aurten ez da oraindik izan.

Aspaldiko laguna du Anjel, gaztetako parrandetan Joxanekin ibilitakoa, baita hau boxeo munduan hasi zenetik borroka guztietara joandakoa ere. Orain, Joxan Coruñan bizi denetik, urtean behin egiten dio bisita Bilbotik pasatzean. Gutxi da, halaxe uste dute biek. Bistan da distantziak lehengo harremana zailtzen duela. Hori badakite, baina euren artekoari eusten diote noizbehinkako bisitetan.

Ez dago trafiko handirik ordu honetan. Autobus urbano pare bat eta kotxe batzuk. Jende gutxi espaloietan ere. Badirudi kale arteko gerizpeetatik ez duela inork irten nahi, labe-kaleotan ez duela inork ibili nahi. Bero honek basamortu bihurtu behar du hiria.

Zubitik pasatzean Bomba ikusi du ondoko taberna batetik irteten. Bomba, Jesus Mentxakaren ezizena 50etako boxeo munduan. Gehienek ezi-

zen bat erabili ohi zuten borroka haietan aritzeko, denetarikoak, baita ingelesezkoak ere. Arerioari beldurra sortzen ziela uste zuten batzuek, ikara batean jarriko zirela kontrakoak. Mundu eta garai hartako estetika kontua zen, Europako zein Ameriketako izenei begirako moda, beste barik. Bomba ezizenak ez zion zorte onik ekarri Jesus Mentxakari. Bigarren eta hirugarren mailako boxeolarien artean ibili zen beti. Patu txarra berea. Kolpe larregi jaso zituen, jasan ahal zituenak baino gehiago, eta haietako batzuek erdi tontotuta utzi zuten, beste askori gertatu bezala. Bombak ez zuen inoiz osperik ezagutu, ezta begirunerik ere. Kolpe zakua, horixe bihurtu zuten. Lau txakur txikiren truke igotzen zen ring gainera, kolpe oldearen esperoan. Boxeoa utzi zuenean ez zeukan ezta pisu bat alokatzeko beste. Arreba gaztearen etxean bizi da ordutik. Bombita esaten diote, «pesos gallo» mailan aritzen zelako, gorputz meharra zeukalako, ukabilen indarra ezerezaren parekoa zuelako, bere erasoak barregarriak izaten ei zirelako. Eta batez ere, ez ziotelako eta ez diotelako begirunerik. Are begirune gutxiago mandatuak egiteaz bizi denez

gero. Erriberako azokako dendari batzuek hara eta hona bidaltzen dute enkarguekin.

– Hi, Bombita, eroan egik legatz pare hau jatetxe horretara.

– Bombita, barbarin hauek Zeferen tabernara, agudo!

– Bombita, atarakostazak honek kaja honek kanpora?

Horrela goiz osoan, mando baten moduan lau txakur txikiren truke. Dendariak dira begirunez tratatzen duten bakarrak, ez kalean topatzen dituen beste sasioilar horiek bezala. Eta lau txakur txiki horiekin ordaintzen ditu bizioak, denak merkeak, jakina, ardoa, pattarra eta ezpainetan etengabe eramaten duen ducadosa. Arratsetan, inguruko tabernetan gordetzen da, azkonar zahar baten moduan, eta egun horretan ateratako sosak xahutzen ditu bihotza laztantzen dioten pattarretan. Gaua heldu aurretik mozkor eginda egoten da, tabernetakoei zein kalean topatzen dituenei istorio zaharrak kontatzen. Alkoholak koipeztu egiten dio mihia. Oroitzapenen kajoia zabaltzen zaio, eta garai bateko kontuak eta gertaerak ekartzen ditu, berriro biziko balitu beza-

la... alkoholak barran bertan lokartzen duen arte. Gaur bai eta bihar berriro, arrebaren etxera eramaten dute lagunek.

Bomba ikustean Jose Luis Agirre etorri zaio gogora Joxani, orain urte nahikotxo harekin izandako liskar batean esandakoa. Igande eguerdia zen, Joxan herriko tabernan zegoen Txerrarekin. Baserriko beharretan jardun ostean, tabernan zerbeza pare baten txanda. Han sartu zen Agirre, jelkide harroa, alderdiak negozio beltzetarako ipinitako jauntxoa. Berehala zuzendu zitzaion Joxan.

– Agirre, aitak baserriarena kontatu zidak.

Ez entzunarena egin zuen. Agirrek beste batzuekin berbetan jarraitu zuen.

– Agirre! –ozenago deitu zion–, gure baserriarena azaldu behar didak.

– Te, te, te!... Uriarte txiki, niri oihurik ez, aditu? Lagun batzuekin nagok, ez duk ikusten ala? Ez duk inoiz errespetuz berba egiten ikasiko. Zer jakin gura duk ba?

– Baserriarena.

– Eta zer esan dik aitak?

– Baserria botatzeko asmoa daukaala, eta soro guztiak hartu hire negozio baterako.

– Ondo dakik hire aita baserriaren maizterra dela, eta, beraz, ez dela zuena...

– Berdin ziok, belaunaldiz belaunaldi eduki diagu, eta ondoko soroak ere bai. Gurasoak zaharrak dituk, zaharregiak inora joateko, ondo dakik hori.

– Ez zidak ardura, txikito, Bilbo Handiko magaletan golf zelaia egiteko proiektua zagok. Ezin zioagu bazter egin. Bizkaiko Aldundiak interes handia zaukak; badakik, Bilboren aurrerapena eta hori guztia, hiri handi bateko zerbitzuak, jendearen aisialdia...

– Zeuek daukazue interes handia –eten zion Txerrak–, jauntxo berriek, jauntxo zerriek. Zuen kontu korronteak zelan loditzen diren besterik ez dizue ardura.

– Hi, hago isilik, oilartxo sasi iraultzailea! Ondo ezagutzen haut hi ere, zer uste duk? Ez hadi sartu beste korta bateko kontuetan!

– Ez diat halakorik egiten utziko –esan zion Joxanek–. Horren guztiaren jabe legala izanda ere, ez daukak eskubiderik.

– Epaitegietako bidea frogatu gura duk?

– Erosi egingo diagu.

– Ez daukazue nahikoa diru. Eta edukita ere, proiektu hori urte pare batean gauzatu egingo diagu. Beraz, amaitu duk eztabaida –eta lagun artera itzultzekoa egin zuen Agirrek, ezer gertatu ez balitz bezala.

Joxanek sendo oratu zion besotik.

– Ez duk putakeria hori egingo! Aditu duk?

– Boxeo borroketarako gorde beharko hituzke indarrak –erantzun zion Agirrek Joxanen eskua besotik kenduz–. Eta egon isilik, osterantzean boxeoaren zirkuituak moztuko ditiat, eta Bombita horren moduan ibiliko haiz, sudurra apurtuta, besteen morroi, egunero atxurtuta... egunen batean itsasadarreko uretara jausi arte. Hori gura duk? Bombita bezalako giza hondar bihurtu? Adi egon, Uriarte txiki, boxeoaren zirkuituak moztuko ditiat, eta damutuko zaik.

– Ez deitu Uriarte txiki, edo txikitu egingo haut...

– Barre eragiten didak, benetan. Hala ere... begira, hire arreba horrek, mokor zabaleko behor horrek gozotzen banaik, ba... akaso atze-

ratu egin genezakek hau guztia. Gustura estaliko nikek behor hori...

Atzera begiratu zuen Agirrek, lagunek grazia zelan barre egiten zioten ikustearren. Basoa zurrutada batez hustu eta Joxanen belarrira hurreratu zen.

– Hire arrebak gozo-gozo jango lidakek aldaba.

– Putakume alua!

Joxanen eskutzarrak samatik oratu zion, atzera bultzaka. Berehala etorri zitzaizkion gainera Agirreren taldeko morrosko bi, ertzain ezagunak. Barraren kontra ipini zuten Joxan, zezen zoro baten moduan bazegoen ere. Txerra saiatu zen Joxanen alde, baina ondoko aulki batzuen kontra bota zuten kolpez.

– Bakea!, bakea! –erregutu zien tabernariak.

– Ez nauk ukitu ere egingo! –oihu egin zion Agirrek–. Ondo aditu duk? Hondoratu egingo haut, lupetzan bertan itotzeraino! Ukitu eta damutu egingo zaik, eta hire gurasoei ere bai.

Eta Txerrari zuzendu zitzaion gero, tabernatik irten aurretik.

– Kaka ere non egiten duan bazakiagu. Zaindu egik hire ipurdi mehe hori. Nork zakik, igoal halako batean mokordoren bat lehertu egingo zaik...

Orduko akorduak odola irakiten jarri dio Joxani. Bombak izkina batetik San Francisco kalean gora alde egin du, beste taberna batera, zelan ez. Eguzkia badoa mendebaldera Bilbo Zaharreko teilatuen gainetik, Malaespera meategi abandonatuaren gainetik. Harantz doa bere bihotza ere, mendebaldera, Fisterra urrun aldera, Bibiren altzo epelera.

Anjelen taberna parean da Joxan. Izerdia sikatu eta beste zigarro bat isiotu du.

Eguzki putakume hau!, dio bere kabutan.

–5–

Hogei bat metrora Ertzaintzaren kotxe bat gelditu da, bigarren lerroan, kontainerren parean. Ertzain bi atera dira, lasai, presa barik. Gaurko sargoriak astiro mugiarazten du hiriko bizitza, antza. Batek txapela jantzi eta gerrikoan sartu du porra. Besteak alkandoraren goiko botoiak lotu eta ondoko bi kontainerren artera jo du. Hantxe, harrapatuta, jonki bat, kontainerraren kontra bermatuta, burua jaso ezinik. Ertzainak haren arropak eta poltsikoak arakatzen hasi dira. Jonkiak ezin die ertzainen galderei erantzun, edo hori iruditu zaio Joxani. Aldi berean, kalean behera abiadura handiz tunning kotxe zaratatsu bat agertu da Joxanen aurrean. Bi gazte barruan, musikaren bolumena ezin ozenago. Apur bat aurrerago, kristalak banatzen dituen furgoneta handi baten traba dela eta, gelditu egin behar izan dute.

– Hi, jipi, atera egik bourbon kubata pare bat! –oihukatu diote leihatilatik Anjelen taberna aurrean jesarrita dagoen agure etxegabeari.

– Non daukak Harley zaharra? –esan dio besteak trufaka.

Kristalen furgoneta bazter batera jarri denean alde egin dute. Gurpilak asfalto beroan harramazka. Tuboeskapetik uzkerka. Musika Miravillatik entzuteko moduan. Joan dira, eta ertzainak, aldiz, beste mundu batean baleude bezala. Egoera ezaguna egin zaio Joxani. Taberna aldera begira jarri da. Hantxe agurea, bizar urdina, motxila zarpaildu bat, poltsa bi eta bera bezain zaharra dirudien txakur bat. Agurea ere Joxani begira geratu da. Kotxearenak ez dio ardura izan, nonbait. Ohikoak ditu mespretxua eta burla. Coruñara heldu eta gutxira antzeko gertaera bat ikusi zuen Joxanek. Hilabete-edo zeraman hirian, berak erabakitako erbeste hartan.

Txerrari gertatutako ezbeharraren biharamunean Outeiriñok argi eta garbi esan zion:

– Begira, hemen, Bilbo aldean, lasai ez bahabil, nik emango diat Coruñako helbide bat –eta basoak sikatzeari utzi eta paper puska batean apuntatu zuen gimnasio baten izena.

Egun hartan ezohiko orduan agertu zen Outeiriñorenera. Musika eta telebista amatatuta, ix-

teko puntuan zeukan taberna, azken bezero zurruteroei azken kopak atera ostean. Joxan barrako muturrean jarri zen, goibel.

– Hemen daukak –Outeiriñok zerbeza ondoan ipini zion paper puska–, Gimnasio Neira, A Coruña. Bertan idatzi diat behar duan guztia: helbidea, telefonoa eta nire lagunmin baten izena. Gimnasioa ez duk berea, baina berak eramaten dik alde teknikoa... entrenatu, borrokak lortu eta hori guztia. Nire partetik hoala esan eta ziur nagok lekua egingo diala. Horrela, behintzat, lehen aipatutakoa beteko duk... denboraldi baterako hemendik alde egin eta...

– Eskerrik asko, Oute, estimatzen diat.

– Txerra hire lagunaren heriotzak zerikusia zeukak honetan, ezta? –galdetu zion amantala gerritik askatu bitartean.

Joxanek ez zion erantzun.

– Berdin zaidak... Hi nire laguna haiz... eta kito. Gura duk gaur gauean hemen geratu?

Baiezko keinua egin zion Joxanek.

Azken zurruteroek alde egin ostean, Outeiriñok gauza pare bat jaso, argiak amatatu eta joan egin zen.

– Bueno, hi, larregi atxurtu barik, bai? –eta giltzaz itxi zuen tabernako atea.

Hurrengo egunean, etxeko arropa apur batekin Coruñara abiatu zen Joxan. Gurasoak arduratuta utzi zituen, alde egite haren arrazoiak ulertu barik. Joxanen azalpenek, boxeo munduan beste bide batzuez aukera onak zeuzkala argudiatuz, inor gutxi konbentzituko zuketen, baina, tira, semearen aukera horiek errespetatu behar. Arrebak isilik entzun zituen, sinetsi barik.

– Zaindu zaitez, bai?

Hori besterik ez zion esan. Luze besarkatu zuen, inoiz berriro ikusiko ez zuelakoan.

Egun pare baten buruan Outeiriñoren lagunaren aurrean zegoen. Honek berehala probatu zuen. Joxanek erakutsi zion bere indarra, bere erasoa. Inoiz baino indartsuago zegoen orduan. Berez zeukan indarrari azken egunetako gertaerek eragindako amorrua gehitzen zitzaion barrenetan. Txerraren heriotza, Euskal Herritik alde egitea, etxea uztea... Aurreneko aste haietan, Coruñan bertan zein inguruko beste herri batzuetan, basurde zauritu baten moduan aritu zen boxeo borroketan, bizia jokoan baleuka bezala.

Portugaldar handi baten aurka izandako borrokaren ostean, dutxatu, orbain batean puntuak josi, tirita zabal pare bat jarri eta gimnasiokoak agurtuta, bakarrik joan zen kalera. Handik gertu, gizon zahar bat zelan jipoitzen ari ziren ikusi zuen. Gazte batzuk gogotik egurtzen ari ziren gizona, kalean bizi den horietako bat. Haren poltsa zaharrak sakabanatuta zeuden kantoiko espaloian, kontainer bat lurrera bota izan balute bezala. Kolpe hotsak sikuak ziren, astunak, eta bazirudien hamaika puskatan birrindu behar zutela.

– Ze ostia pasatzen da? –oihu egin zien Joxanek.

Gazteetako bat Joxanengana hurreratu zen, eta, hark jo aurretik, Joxanek ukabila sartu zion saihetsetan, gibeleraino. Eta hurrengoa matrailan. Belauniko geratu zen hormaren kontra. Haietako beste bat arineketan etorri eta Joxani buruaz jotzen saiatu zen; Joxanek atzera egin eta uppercut bat zuzendu zion mutur aldera. Sudurraren hezurra zelan kraskatu zion entzun zuen. Odola zeriola laga zuen etzanda. Atzean,

gizon jipoituaren ondoan zeuden gainerakoek hanka egin zuten.

Etxegabeari poltsak jasotzen lagundu eta taxi batean sartu zuen.

– Gurutze Gorrira –esan zion txoferrari ordaindu ostean.

Hauxe duk indarra ondo erabili duan lehen aldia, pentsatu zuen urruntzen ari zen taxiari begira. Gau ilunean aldameneko kale batetik langile batzuen berbaroa zetorren. Odol zipriztinak igarri zituen hormako kartel batean: Rebajas en Modas Villar. Merke baino, doan etortzen duk bizitza honen kabroiena, pentsatu zuen.

Txamarraren kremailera igo eta ostatura jo zuen.

–6–

Egunero bezala izerditan amaitu du lana Asunek, bazkarien usain sarkorrak larruazalean itsatsita. Goizeko bederatziak aldera tabernako sukaldera sartu eta eguerdian ematen dituzten menuak gertatzen ditu. Gertatu eta dena garbitu. Sukaldean berarekin Marijo, hirurogei urteko andre grazia handikoa, hari esker eramaten du sukaldeko eta jantokiko lana. Marijok, zorionez, beti dauka txantxaren bat ahotan, eta badaki, behar denean, Asun zelan animatu egunerokotasun arruntean.

– Bueno, guapa, jarri abakandoak eta lanpernak egosten biharko menurako, lehendakaria etorriko zaigu eta!

Marijo atetik desagertzeaz batera barra aldetik datorren irratiko musikak hartu du sukaldea. Funk dance elektroniko baten erritmo espitosoak. Bafleak ikara batean jarriko lirateke irratiko bolumena apur bat gehiago igoz gero. Eta dantzarako musika-gonbite horrekin nahastuta, esatariaren ahotsa:

«Txirene irratian eskertzen ditugu zuen deiak, entzuleok! Deustu aldeko Kabia kulturguneko Aritzek egin digun bezala, zuen proiektu alternatiboen berri emateko badira, are hobeto! Eurentzat da orain entzuten ari garena, Groove Armada taldearen *I See You Baby,* Fat Boy Slimek oraindik itzelago moldatu duena. Honekin dantzan jartzen ez dena gorra da, eta kaleko farolak baino mugiezinagoa. Kabia kulturgunekoak bai mugitzen direna! Aritzek ederto azaldu dizkigu hurrengo bi hilabeteetarako antolatu dituzten kultur ekitaldiak, baita inbidia sanoa eman ere. Proposamen interesgarriak, bai, inondik ere, hiri honetako kultura ofizialarenak baino interesgarriagoak behintzat; eta, gainera, inolako diru laguntzarik gabe... Zuk zeuk egizu! Ieloaren jarraitzaile finak ditugu lagun hauek. Adi, beraz, handik egiten dizkiguten eskaintzei! Isil nadin orain, Groove Armada taldearen abesti honek merezi du eta».

Asunek, amantala erantzi bitartean, irribarre egin dio Marijori. Abakandoak garbantzu bihurtuko dira, eta pasta, eta zopa; lanpernak, berriz, xerra, oilaskoa edota berdela. Eta gero fruta, jo-

gurra edota arrozesnea. Ardoa, gaseosa, ura. Kafea, kopa, purua. Berba horiek guztiak errepikatzen ditu ahopean ispiluari begira. Eskuak eta besoak garbitu ditu usain gozoko gel batez, baita musua eta sama ere, lanaren arrastoak ezabatu nahian. Ilea atzerantz bildu eta eskuez kolonia apur bat zabaldu du sama aldean... eta alkandorak bistan utzi duen bularren erretenean. Ez zaio gustatzen ispiluan ikusi duena. Berrogeita bi urteko aurpegi ilauntzen hasia. Begi ondoak behar baino zimurrago. Ninietan nekea. Ile zuri batzuk han eta hemen, ileapaintzaileak noizean behin ezkutatzen dizkionak. Eta are grisagoa ispiluan ikusten ez dena, bihotza, esaterako, edo egunerokо bizimodua. Baina hori ukatu egiten dio bere buruari. Semeak poza ematen dio, zelan ez, eta gizonak... gizonak eman beharko lioke. Ona da gizona, baina... zer da ona izatea? Arazorik ez, baina... Nahasi egiten dute «baina» horiek. Pentsatzeak berak inarrosi egiten dizkio barrenak, burua erotu. Eta beldurtu egiten da. Ez du pentsatu ere egin nahi ekibokatu egin ote zen. Semea dago tartean. Begiak bildu, astiro igurtzi eta alde egin du sukaldetik tabernako barrara.

Dena ondo balihoa bezala. Barran Anjel, bere neba, kafe pare bat izotzarekin gertatzen.

– Dena amaituta?

– Amaitu dugu, bai –diotso Asunek, eta zerbeza bat atera du neberatik.

Txapa kendu eta botila erdia hustu du zurrutada batez. Egarri itzela gaurkoan.

– Hor kanpoan daukazu Balentin...

Dagoen lekutik ikusten du Balentin, agure etxegabea, poltsa zarpailduez inguratua. Ondoan etzanda txakurra, lagun leiala.

Hegan egin nahiko lukeen kotxe baten gurpilek asfaltoan harramazka egin eta zarata gorgarria atera dute, 1 Formulako txapelketa bateko irteeran baleude bezala. Tuboeskapetik leherketa txiki modukoak atera zaizkio.

Asunek zigarro bat isiotu, beste zurrutada bat jo eta sukaldera sartu da berriro. Handik hamar minutura irten da kanpora: esku batean zerbeza bat eta bestean ogitartekoa, okela piperrekin. Balentinen ondoan egurrezko bankuan utzi ditu zerbeza eta ogitartekoa.

– Hola, Balentin –bankuan jesarri da bera ere.

Balentinen bizarraren erdian esker oneko irribarrea agertu da. Haren kristalezko begirada ere antzekoa, atsegin eta apala. Horixe izaten da Balentinen keinu bakarra. Ez du berbarik egiten. Noizean behin, handik eta hemendik noraezean ibili ostean, egurrezko banku honetan jesartzen da. Asunek zer edo zer atera eta ondoan erretzen du zigarroa, hari laguntzearren... bakarrik ez uztearren. Kotxerik ez une honetan. Eta hortxe dagoela, zigarroa ezpainetan olgetan, Joxan ikusi du, tabernarantz datorrela. Ikustearekin batera zimiko urduria igarri du bularraldean, eta nahi gabeko irribarre gozoa egin zaio ezpainetan.

– Aspaldiko, Joxan –bankutik altxatu eta musu pare bat eman dio–. Uste nuen neba gezurretan ari zitzaidala...

– Zer ba?

– Sarritan esan dit noizean behin agertzen zarela hona, urtean behin edo birritan.

– Eta hala da.

Isilunea bien artean. Badirudi lehengo garaietako aurpegiak bilatu nahi dizkiotela elkarri. Baina gatxa da kontua, hamabost urte elkar ikusi

barik, elkarren berri izan barik, eta, jakina, hori igarri egiten da. Dagoeneko ez dira gazte haiek.

Asunen begi berdeak beti bezain zoragarriak iruditu zaizkio Joxani, nahiz eta nekea igarri, halako tristura bat. Urteak, lana, errutina... pentsatu du Joxanek.

– Joan zinenetik hauxe da ikusten zaitudan lehen aldia –diotso Asunek.

– Arratsalde partean etorri izan naiz, zuk alde egindakoan, nonbait.

– Ez zeneukan lehenago etortzerik? Gustura hartuko nuen zurekin zerbeza bat, lehen egiten genuen moduan.

– Bai, arrazoi duzu. Baina, badakizu, hau dela, bestea dela, ba... ezin.

Isilunea berriro. Asunek ezpainetara eraman du zerbeza Joxanen begiei begiratzeari utzi barik. Honek zigarro bat eskaini dio. Ezin izan dio Asunen begiradari eutsi. Sua ematean, Asun apur bat harengana makurtu eta oratu egin dio eskua. Ukitua eta usaina bihotzera heldu zaizkio Joxani. Galiziara alde egin aurretik ohikoak ziren momentu hauek. Ohikoak ziren musuak, besteen begiradetatik kanpo. Eta ohikoak, neurri batean,

beroaldiak, izerdia eta arnasestuak bazter ilunetan. Dena sekretuan, isilean. Izan ere, euren inguruko inork ez zeukan haien artekoaren berri. Baina hamabost bat urte dantzan daude ordutik. Joxanek alde egin zuen bezain isilik geratu zen hura guztia. Biak dira lekuko bakarrak.

– Zelan semea? –galdetu dio Joxanek.

– Aitor? Ondo, nahiko koskortuta. Zortzi urteko mutil guapoa, bai. Zuk badaukazu seme-alabarik?

– Ez, ez. Boxeoa izan da nire ume bakarra. Ez dut bestelako umeentzako tarterik topatu...

– Baina emazterik badaukazu?

– Ezkondu barik, baina bai, bada emakume bat nire ondoan.

Beste isilune bat. Joxanek ez daki Asunek amorrua gordetzen ote duen ala ez, ezer esan barik alde egitea barkatu ote dion ala ez. Ez dio galdetu nahi. Beharbada, aspaldiko kontua delako, ahaztuta dauka, gaindituta. Hori galdetzea orduko errautsak astintzea izango litzateke. Zertarako? Hortxe daude biak, aurrez aurre, nork bere bizitza, nori bere patua... Ondo daki txarto jokatu zuena, eta hobeto daki orain azalpenek

balio ez dutela. Eta guztiarekin ere, bitxia egiten zaio Asunen aurrean sortu zaion urduritasuna. Bitxia egiten zaio begi berde horiek beti bezain zoragarriak izaten jarraitzen dutela pentsatzea. Pentsatzea, bien artean zer izan zitekeen... eta zertan geratu zen dena. Bihotzaren txoko ahaztu eta aspaldian lokartu hori itzartu egin dela iruditu zaio, eta ez du ezertarako balio.

– Joxan, kabroi hori, garestiak dituk hire bisitak!

Anjel, Asunen neba, konturatu da Joxan dela arrebarekin berbetan hor kanpoan dagoena.

– Oso guapa zaude –esan dio Asuni taberna barrura sartu bitartean.

Asunek begirada jarraitu dio tabernako atetik desagertu arte. Zigarroari kalada luze bat eman eta kea irribarre itxura hartu duten ezpainetatik bota du astiro. Jendearen joan-etorriak, kotxeen mugimenduak... dena doa astiro. Gaurko bero sapa honek hala agintzen du Asunen begien aurrean. Iragana dabilkio begiradaren barruan, mugimendu moteletan... gaurko eguna bezain bero. Zigarroari tira egitean ohartu da aspaldi margotu barik dauzkala azkazalak. Berdin dio. Bat

datoz sukaldeko lanek eragindako eskuen azal latzarekin.

– Zer edo zer gehiago behar duzu? –galdetu dio Balentini.

Honek ezetza egin dio.

Zerbeza botila hustu, platera jaso eta barrura sartu da, sukaldera. Barrako beste muturrean Anjel eta Joxan ikusi ditu bostekoak lotuta. Sukaldean aurpegia berriro busti, sikatu, gauza pare bat poltsan sartu eta barrara jo du tabakoaren eta mobilaren bila. Berbaro ozena entzun du atze aldetik.

– Goizean sukaldean, eguerdian jantokian eta orain barran... Aizu, denetarik egiten duzu, ezta?

Egunero etortzen da gizon koadrila hori. Denak dabiltza itsasadar gaineko petril zaharrak berritzen, jausteko puntuan daudenak batez ere. Gehienak kanpotarrak. Lan horretan hasi zirenetik Anjelen tabernan bazkaltzen dute. Ondo ezagutzen ditu Asunek. Lanetik etorri berriak dira, mahoizko praka zikinduak eta kamiseta izerdituak. Juanlu da barrara hurreratu dena, gazteena, 35 urteren bueltan.

– Zelan ba berriro hemen? –diotso Asunek.

– Gaur zerbait ospatzeko dago...

– Oraindik ez duzue ondokoa amaitu, ezta?

– Ez, ez, hori ez da arrazoia, neska, gaur nire urtebetetzea da.

– Zorionak.

– Eskerrik asko. Hauek berehala joatekotan ziren. Arropak aldatu aurretik trago bat ordainduko dudala esan diet, eta, begira, denak apuntatu dira.

– Ederto, zer nahi duzue?

– Zer nahi duzue? –galdetu die Juanluk langileei.

Asuni Juanluren kizkurretara joan zaio begirada, haren sama aldera, haren bizar egin gabearen artean ikusten dituen ezpain gazteetara. Orain bi hilabete hasi dira tabernara egunero etortzen, eta ordutik dauka eurekin tratua. Eguneko menua, lana, eguraldia eta halakoak izaten dituzte hizpide. Kontu laburrak. Txisteren bat ere izaten da tartean, zelan ez. Kafeak eta kopak direnean lasaiago ibiltzen da Asun, ez horren azeleratua. Orduan berbetan jarduten du Juanlurekin. Atsegina iruditzen zaio Tuteratik lanera etorritako mutila. Egia esan, hasieran atsegina iru-

ditzen zitzaion, beste barik, baina egunak pasa ahala erakargarria iruditzen zaio orain. Ile beltzaran kizkurtua, ezpainak, bere ahotsa... Kontu hori buelta eta bueltaka eduki du buruan. Konturatu da gero eta denbora gehiago ematen duela Juanlurekin berbetan. Gustura sentitzen dela berarekin. Emetasun puntua berreskuratzen duela harekin egotean. Baina berehala uxatzen ditu kontuok, senarrari egindako engainua delakoan. Aitor semeari egindako engainua delakoan. Eta, hala ere, ezin du azkenaldion gazte hori ikustean barrenean igartzen duen zimikoa uxatu.

– Oruxoa denontzat! –bota du ozen Juanluk.

– Zelan?

– Oruxo botila bat eta zortzi baso, horixe bera.

Hozkailutik atera du oruxo botila berri bat, ireki barik. Haren ondoan zortzi baso.

– Eta beste bat zuretzat –diotso Juanluk.

– Zerbeza amaitu berri daukat...

– Berdin dio, neska, sikiera topa egiteko apurtxo bat, ezta?

Bi erronda egiteko heldu zaie botila. Ordu erdi bat. Asunek eta Juanluk berbetan eman duten ordu erdia.

– Bueno, orain ni ostatura eta neure bihotza Tuterako tabernetara joango da.

– Horixe da egun honek eman behar dizuna? –galdetu dio Asunek zigarro bat eskainiz.

– Ez dakit, osteratxo bat emango dut Arenaletik...

– Nahi baduzu elkarrekin zer edo zer hartuko dugu geroxeago –ia ahopeka esan eta zigarroa isiotzen jarri da Asun, Juanluri begiratu nahiko ez balio bezala.

Lehenengo kaladaren kea botatzean Juanluren begiak topatu ditu aurrez aurre.

– Oso ondo –diotso Juanluk gozo.

– Zazpietan?

– Non?

– Plaza Barria ezagutzen duzu?

– Bai.

– Ba, Plaza Barriko Cafe Bilbaon, zazpietan.

Koadrila osoa joandakoan sukaldera sartu da. Eta berriro ireki du uraren txorrota, hortxe sartu ditu eskuak. Ur freskoa aurpegira berriro, eta sa-

mara. Burua bera sartuko luke txorrotaren azpian, barrenak irakiten jarri dizkion beroa amatatzearren. Azala sikatu eta mobilaz dei bi egin ditu. Bata amari, Aitor jasotzera ikastolara joateko. Bestea senarrari, Mila, aspaldiko laguna, lagun asmatua, tabernan agertu eta arratsalde pasa egiteko gonbitea egin diola, eta segur aski nonbaiten mokadutxoren bat hartzen amaituko dutela, gauera arte ez itxaroteko. Azken dei horren ostean beste zigarro bat isiotzean apur bat dardaraka ikusi ditu eskuok. Dardara hori bera ikusi du segundo pare batez ispiluan islatutako begietan. Arnasa sakon hartu eta poltsan arakatzen hasi da: begietako marra beltza, ezpainetarako barra, betazaletarako kolorea, oso noizean behin erabiltzeko arrakada dotoreak, ilerako zepilloa eta ile mataza biltzeko zinta elastiko gorri iluna. Orain ordu laurden bat baino ederrago ikusten du bere burua. Marijoren kajoian topatu du azkazal tristeak biziberritzeko margo gorri xuabe bat. Itsasadarrera ematen duen leiho txikiaren koxkan jarri ditu azazkalak sikatzen. Haizerik ez kanpotik. Bero astunak laztan lakarra jarri dio aurpegian. Ez da kaiorik ur uherron gai-

nean. Jende gutxi hara eta hona. Zubi azpiko bazter batean uzkurtuta jonki bi ari dira beso ubelduak ferekatzen, gerizpean. Hala ere, hala-ko hozkirri fresko bat igarri du bihotz ondoan. Hobeto sentitzen da. Larruazalean jarri dituen koloreak dira errudunak, pentsatu du, baina ez, koloreak jartzeko arrazoiak dira ezinbestez.

–7–

– Joxan, kabroi hori, garestiak dituk hire bisitak!

Taberna barrutik datorren diosala entzun du Joxanek. Hantxe dago Anjel, barra atzean.

– Oso guapa zaude –diotso Asuni, eta honi begira sartu da tabernan.

– Urtebete bai, edo gehiago, agertu ere egin ez haizela! –bostekoa eman dio Anjelek.

Bosteko luzea halako indar lehia bihurtu da, lagunen artekoa. Anjelek amorru aurpegia jarri badu ere, txantxetan ari da.

– Hi boxealaria izango haiz, baina Anjel honek idi pare baten indarra zaukak oraindik –estuago tinkatu dio eskua–. Zer uste duk ba?

– Hori ring baten gainean ikusi beharko genikek, ahobero hori!

Eta barre algara batean askatu du eskua Anjelek.

– Aitarenak ekarri hau oraingoan, ez duk?

– Bai.

– Atzo gauean ikusi genian eskela. Badakik, egunaren hondarrean ematen zioat begiratua egunkariari... eta berandu hiletetara joateko.

– Ulertzen diat, Anjel, ez didak ezer esan behar.

– Pena hartu genian etxean, benetan, aitak, nik, denok...

– Tira, honezkero ezin diagu ezer egin. Halakoxea duk bizitza... Heriotza duk egiarik berdaderoarena, eta haren etorrera ahalik eta ondoen onartu behar.

– Noiz arte egongo haiz hemen?

– Bihar hartuko diat trena, arratsaldeko lauretan.

– Bueno, zer edo zer hartuko diagu! Zer nahi duk?

– Zerbeza bat.

– Zerbeza berezi bat aterako diat, gaurkoak merezi dik.

Sukaldera joan da Anjel, hango hozkailu batera.

– Oruxoa denontzat! –entzun du Joxanek batbatean.

Barrako muturrean dagoen koadrila bat izan da. Handik atera dira berba ozenak: Oruxoa denontzat! Aldarriak Galizia ekarri dio gogora... Santa Mariñako laguna, Urbano Lugris zaharra etorri zaio akordura, bihotzera.

Oruxoa denontzat! Horixe bera esaten zuen bere etxolatik, eta inguruko kaioek izututa hegan egiten zuten portuko bazterretatik ihesi. Minutu pare bat ematen zuten itsaso apartsu gainean eta karraka pausatzen ziren berriro portu ondoko hondartza txikian.

Oruxoa denontzat! Horixe bera entzun eta portuan lanean ari ziren arrantzaleak, kaioak ez bezala, sareak, txangurrotarako butroiak pilatu edo bestelako betebeharrak alde batera utzi eta Urbanoren etxolara abiatzen ziren, oruxo zurrutada pare bat, edo gehiago, jotzera. Hara biltzen ziren arrantzaleak, Urbanoren etxolara, berak kostalde bortitzari egindako margolanen artera. Horixe zen Urbano Lugrisen zeregina, itsaso zakar hark jotako irlak, kalak, hondartza galduak eta ur sakoneko bizimodua mihiseetara ekartzea.

Galiziara joan eta urtebetera ezagutu zuen Urbano Lugris, ostegun goiz lainotsu batean. Ordura arte Coruñan ematen zituen egunak, gimnasioan batik bat, ostiraleko edo larunbateko konbateak prestatzen, denak amateurrak, ez konbate ofizialak. Hona edo hara joan eta honen edo haren kontra jo, diru apur baten truke. Inongo arrakastarik ez bistan, are gutxiago estatu mailako lehiaketa ofizialetan parte hartzeko zerrendetan. Galiziako hirugarren mailako kiroldegi eskasetan, jaietan zeuden herrixketako plazetan edota lokal ziztrinetan aritzen zen Joxan, kea eta pattarrak nagusi bertaratutakoen artean. Apustuak bolo-bolo, zelan ez. Bestea akabatzeko oihuak. Probetarako idiak bezala eramaten zuten Joxan herri batetik bestera. Kolpeak eman eta kolpeak jaso. Odola eta beltzuneak. O boi vasco, idi euskalduna, halaxe esaten zioten herrietan. Astean behin telefono deiren bat etxera, edo lagunen bati, eta huraxe zen dena. Konbateek emandako diru etekinekin bigarren eskuko kotxe bat erosi zuenetik alde egiten zuen Coruñatik, ahal zuenero. Halako egun batean, behelainoak zarratutako errepide eskas batzuetatik

ibili ostean, Santa Mariñan agertu zen. Herriko kale bakar eta aldapatsutik jaitsita heldu zen portutxora. Han topatu zuen Urbano, portu pareko hondartza txiki batean, hondartza bera eta itsasoa mihise karratuan margotzen. Hurbildu ahala, baina, bestelako irudi batzuk ikusi zituen koadroan, parajeetan ez zeudenak: irla zorrotz batzuk, zeru iluna... eta hodei baten gainean etzanda itsaslamia bat, bular oparoen jabe.

Joxanen presentziak nabaritu zuen Urbanok.

– Uste dut amaitua dela –esan zuen itsasoari begira–, ez duzu uste?

Argi zegoen galdera Joxanentzat egina zela.

– Irla horiek, itsaslamia...

– Ez dituzu ikusten?

– Ez.

– Ba nik bai. Hor egon dira egunotan... gaur ere bai. Halako misterioak gordetzen ditu itsasoak –esan zion itsasoari begiratzeari utzi barik–. Kontua da zelan begiratzen duzun, itsasoak zer eskaintzen dizun... Erraza da kontua: itsasoari begiratu eta gero itxi begiak... orduan agertuko zaizu bere benetako izaera, irudia. Bihotzetik begiratuko bagenu bezala.

Joxanek ez zuen ulertu. Zoro samarra iruditu zitzaion gizona, baina, antza, ohikoak izaten ziren halakoak artearen mundu horietan. Hala ere, gozo iritzi zion, ederra, bere bizimodu bakarti eta kolpezalea baino humanoagoa.

– Erakutsiko dizut zelakoa den nire itsaso hau –eta trasteak batzen hasi zen, pintzelak, boteak, trapuak...

Urbano Lugrisek portuan bertan zeukan etxolara joan ziren. Baleak eta faroak, ilargiak eta itsasoko iparrorratzak, ontziak eta largabistak nahasten ziren han gordetako koadroetan. Errealismo guztia olgetan zebilen hamaika kolore artean. Ez ziren Joxanen munduko irudiak, baina bake itzela ematen zioten behin eta berriro begiratuz gero. Urbanok kriseilu moduko bat piztu eta botila bat ipini zuen egurrezko mahai gainean, baso batzuekin batera. Kanpora irten eta esan zuen: oruxoa denontzat!

Inguruko arrantzale zahar batzuk agertu ziren etxolara, zazpi itsasoak zekartzatela begietan.

Iluntzerako hutsik zeuden dozena erdi botila.

– Nahi duzun arte –esan zion Urbanok, Joxanek kotxearen motorra martxan ipintzean.

Kresala, pinuak eta txilarrak nahasten ziren Joxanen sudurzuloetan. Inguruko etxetxoetako argi apal eta dardaratiak besterik ez ilunpe zarratuan. Joxanen begietan oruxoak eragindako lausoa... eta Urbanoren etxolan ezagututako epeltasun humanoa.

Laburra egin zitzaion etxerako bidea.

–8–

Toots and The Maytals-en *Broadway Jungle Dub* kanta zaharraren bolumena jaitsi egingo dut apurka-apurka. Erritmo horiek galdu barik nahi dugu heldu zaigun berri bat entzutea...

Broadway jungle, jungle, jungle!
C'mon, girls!
C'mon, boys!
Let me tell you
about Broadway jungle!

Txirene irratiko entzuleok, berri beltza orain pare bat minutu Santurtzitik heldu zaiguna. Hango portuan, Zipreko bandera duen merkatalontzi batera poliziak sartu eta zazpi etorkin atxilotu dituzte, Estatu espainiarrera modu ilegalean sartu nahi zutelako aitzakiaz. Zortzigarren batek uretara salto egin omen du. Atxilotutako etorkinek esandakoaren arabera, salto egin duena emakume bat da, haurdun dagoen emakumea. Poliziaren sarekada ikusi duen lekuko batek

eman digu albistea. Poliziaren zodiak bat portu inguruko ur bazterrak miatzen ari dela esan digu, txakurradaren mugimendu larregi dabilela portu aldean.

Broadway jungle, jungle, jungle!
C'mon, girls!
C'mon, boys!
Let me tell you
about Broadway jungle!

Sea Eagle izeneko merkatalontziak eguerdi aldean atrakatu du Santurtziko portuan, arazorik gabe, antza, baina ezin izan du tripulazioa lehorreratzeko baimena lortu. Lehorreratzeko atzerapena portuko Poliziak agindu du, ontziak zekarren zama ateratzeko beharrezko ei diren bestelako baimen batzuen aitzakiaz. Eta horrelaxe, zain, ontziaren tripulazioak karelean zein kubertan ordu bi inguru eman ditu, lehorreratzeko baimenen zain. Bitartean, ordu bi horietan, polizia gehiago bildu da inguruan, eta horren ostean, lekuko honek esanda, dozena bat polizia igo da ontzira, brankatik txopara sakabanatu dira eta

kubertara atera dituzte etorkinak, eskuburdinak jarrita. Furgoietara jaitsi dituzte, banan-banan, atxilotuta, ontziko kapitainarekin batera. Orduan, Poliziaren operazioa amaitzen ari zela zirudienean, beste etorkin bat agertu ei da kubertan, arineketan, ontziaren bestaldeko karela gainditu eta uretara egin du salto. Hortik aurrera nahaste-borraste handia izan da. Poliziak hara eta hona, furgoiak joan eta etorri, sirenotsak portuan zehar... eta handik gutxira zodiak bat portuko uretan bueltaka...

Hori da momentuz dakiguna: uretara salto egin duena emakume haurdun bat dela, atxilotuak bezala jatorri afrikarrekoa... Kontu hau argituz doan neurrian informazioa helaraziko dizuegu.

The way cannot be but blood
The song
of mud caught up in the blood, dying
holding on too life
but dying all the same, yet livin' out the pain
The end cannot be but sweet, final

33 graduak ez dira termometrotik jaitsi, eta, dirudienez, jaisteko gogorik ez. Toots and The Maytals-en erritmoekin jarraituko dugu bitartean, *The Right And The Wrong Way* kantarekin. Nik ere zerbait freskoa edan behar dut, txirenetarrok... dagoeneko musker azalaren antzera igartzen dut eztarria, eta tripa barruak zazpi kaleko denda zahar horretan saltzen duten bakailao sikua baino sikuago... Astuna da leihotik sartzen zaigun airea, Sefanitroko gasa ematen du, benetan, erre egiten du azala. Nork esan du Euskadi tropikal hura desagertua zela? Etor bedi labe bihurtutako Bilbo honetara. Gaur ez da parrillarik behar txitxarroak erretzeko, ezta ikatzik ere; erretiluan utzi eta berez egingo dira.

Larregi luzatzen ari naiz txapa hau, lagunok. Isildu eta garagardo fresko horren bila noa... Hortxe daukazue Toots and The Maytals-en *The Right And The Wrong Way*... goza egizueeeee!

–9–

– Honek merezi dik –diotso Anjelek, Joxanen aurrean zerbeza botila luzanga bi ipiniz.

– Nik ez diat zerbezaz aditzen...

– Berdin ziok, hik probatu eta esango didak. Lagunen artean baino ez diat marka hau ateratzen, zer uste duk –eta atzera egin du baso handi pare baten bila–. Alemaniarra duk, ez zakiat nongo komentutan abade alfer potrozuri batzuek egina; hauxe ei duk euren plazer lurtar bakarra.

Anjelek baso luze makurrarazian zerbeza zelan isurtzen duen ikusten du Joxanek. Aparra neurrian geratu da haren gainean, kotoizko laino baten moduan.

– Beharbada aspaldiko lagunak garelako, gazte-gaztetatik, badakik... aitaren heriotza oso mingarria izan bada ere, bestelako zeozer igartzen diat... zeozer ezkutua...

Joxanek ez dio erantzun. Begiak bildu eta ahora eraman du zerbeza.

– Ez daukak kontatzeko beste ezer?

– Ez –erantzun dio Joxanek apaleko botilei begira–. Egun hauetakoa izango duk... aitarenak nire mundutik atera naik... Orain egun batzuk arrebak deitu eta aitak bihotzekoa izan zuela esan zidaan, larri zegoela. Etortzea erabaki nian... hango kontu guztiak aparkatu eta hona segituan. Behintzat aitaren ondoan eman nitian bere azken egunak. Ez duk gutxi.

– Hire arrebak kontatu zidaan orain hilabete bi-edo, hona agertu zen egun batean, Jose Luis Agirre hori larregi estutzen ari zela zuen aita, baserria eta soroak eskuratzeko, golf zelai hori martxan jartzeko.

– Kontu zaharra duk golf zelaiarena. Ezagutzen ez ditudan arazo edo traba batzuk izan dituk hau lehenago ez gertatzeko; baina, bai, azken hilabeteotan azkartzen ari zuan... Agirre hori putakume itzela duk!, putre galanta!... sasidemokraziaren jauntxo negoziante berria, eusko jaurlaritza, diputazioa eta udalaren babespean beti dirutza egiten.

– Beharbada estutze horrek kalte egingo zioan zuen aitaren bihotzari.

– Auskalo...

– Horrek usteltzen ditik hire barrenak?

– Zerk? Putakume horren sokak gure aitaren zintzurrean? Balitekek, zergatik ez...

Biek batera jo dute zurrutada, isilean. Anjelek amorrua ikusi uste du Joxanengan, mendeku nahia. Honen bisajea gogortu egin dela iruditu zaio, Joxanen benetako mina ukitu balu bezala. Hasierako irribarrea desagertu egin zaio Joxani, eta aurpegieran bestelako seinaleak nabarmendu dira, ukabilak erabili izan dituenetan agertzen zaizkion berberak, borroka hasi baino segundo batzuk lehenago azaleratzen direnak. Eta horretaz konturatu da Anjel.

– Egon hadi, Joxan, koadrila horrek trago luze batzuk eskatuko zizkidak –diotso Anjelek barrara hurbildu diren batzuengana doala.

Beste zurrutada batez hustu du Joxanek basoa. Egarri itzela gaurkoa. Bekokitik pasatu du eskua, tantaka jausten zaion izerdia kendu nahian. Badirudi edandako guztia azaleko poroetatik agertzen dela berriro. Bustita sentitzen du sama, eta kokotea. Gimnasio Neira iragartzen duen niki horia bustita dauka bizkarrean eta bularrean.

Botilen apaletik kalera atera du begirada. Anjelekin izandako solasaldiaren ostean arrapaladan datozkio gogora igande ez oso urrun bateko irudiak, Coruñan, Bibi beltzaran gozoa ondoan, arrebak egindako deia, Txerraren heriotza zelan gertatu zen jakin ostean kristala apurtzeagatik eskua odoletan... Hori guztia etorri zaio akordura Joxani, bero sapa honen azpian hiria urtzen ari den bitartean.

–10–

Igande hartan berandu jaiki zen. Komuneko ispilu aurrean ur hotzaz garbitu zituen bekarrak, aho ertzetako adur sikua eta haginak. Bart lanean ibilia zen Susorekin... lanean eta lanaren osteko tragoetan. Handik zetozkion aho zuloko hats nazkagarria eta burua zigortzen zioten mailukadak. Eskuak ur txorrotaren azpian sartu eta soina igurtzi zuen behin eta berriro. Leihotik eguzkiaren presentzia ezohikoa Coruñan. Sukaldetik kafe egin berriaren usaina, Bibiren ahots epelarekin batera.

– Bizirik zaude?

Joxanek ez zion erantzun. Ur tantek laban egiten zioten burutik behera, hiriko teilatuen gainetik ikusten zen itsasoari begira zegoela. Bizirik, bai, pentsatu zuen, bizirik nago, bart portuko zaindari batek egindako tiro biak saihestu ostean.

– Kontu erraza duk, Joxan –esan zion Susok–. Pabiloi horretako giltzarrapoa hautsi eta pake-

teak furgoian sartu, besterik ez. Dena tabakoa, Winston dotorea.

Eta halaxe egin zuten Joxanek eta Lalin izeneko beste batek. Berrogei bat paketetzar guztira, ez pisu handikoak, ez, baina bai lana eman zutenak. Lau bat edo falta zirenean zaindarien oihuak, alto! alto!, eta Lalinek eta Joxanek ziztu bizian furgoiko atzeko ateak itxi eta ihes egin zuten. Furgoi barrura sartu baino segundo bat arinago tiro bi igarri zituen Joxanek metro batera, bolantearen azpira makurtzen ari zela. Tiro bi, aurreko kontainer batean hozka egin zutenak. Hots metalikoak gauaren ilunean. Hots metalikoak, furgoiaren motorreko zarata burrunbatsua gero, eta gurpilak txistuka asfalto bustian ondoren. Argiak itzalita gidatu zuen Joxanek Susok agindutako biltegiraino, dardara batean.

– Ostia, Suso, gutxi falta izan dut bizkarrean beste sudur bat izateko, zulo biko opari beroa etxera ekartzeko...

– Trankil, boi, «lasaigarri» batzuk hartuko ditiagu Tabeiron Brancon. Hi bezalako gizontzar batek barre egin beharko liekek halako berunez-

ko liztorrei –eta barre batean hasi zen Suso, nikotinaz zikindutako haginak agerian.

Sorbaldatik helduta kotxean sartu eta Tabeironera abiatu ziren.

– Zer dituk berun puskatxo horiek boi vasco batentzat! –ziotson Susok kotxe barruan, kasetetik Amalia Rodriguesen fado gozo eta triste bat entzuten zela.

Hurrengo hiru orduetan Tabeironeko «lasaigarrien» alkoholak baretu egin zuen Joxanen dardarizoa, portukoa ahantzarazi, barre algarak sortu... eta goizean, esnatzean, kaskarreko mina.

– Ondo bizirik nago –esan zion Bibiri.

Berriro ura eskuetan hartu eta burura eraman zuen. Atzerantz busti zuen ilea, eta ispiluan Bibi ikusi zuen, katilu bat kafe berorekin.

Gelokatil bat sartu zion ahoan, eta kafeaz lagunduta irentsi zuen pilula Joxanek.

– Hau zaintza ederra...

– Goiz honetako zaintza ez da oraindik amaitu, meu coraçao...

Eta ispiluan ikusi zuen, ahoan kafe beroaren zaporea zebilkiola, Bibik zelan erantzi eta jaus-

ten uzten zuen kamisoi zuri fina. Ispiluan ikusi zuen zelan pausatu zituen ezpain haragitsu moreak bere saman, ezpain potolo haiek zelan hasi zitzaizkion olgetan. Inoiz eta inon ikusitako Klimt-en koadro bat ekarri zuen gogora. Eta begiak bildu zituen, eta kafearen zaporea dastatzen segi. Bibiren adats kirrutsuak igarri zituen lepoan, bere jainkosaren laztan kilimak. Eta haiekin batera titimutur harrotuen kontaktua larruazal bustian. Astiro baizik ezin zuen arnasa hartu. Kolpeka bezala. Bibiren eskuek Joxanen bularra laztandu zuten, meu coraçao... eta astiro egin zuten laban bularretik gerrira, eta astiroago oraindik gerritik sabelpeko kirruetara, presa barik. Titimutur gogortuak bizkarrean iltzatuta, mihia goitik behera eta behetik gora, desertuan egarriz bezala, eta eskuak, Bibiren esku ilunak haren hankartean, atzamar itsuek aztertzen duten eran. Arnasestuka ari zen Joxan, o boi vasco, konbate amaiezin bateko hamalaugarren roundean bezala. Atzera bidali zuen eskumako eskua, itsu, zentzu guztietan, Bibiren frutaren bila. Honek bidea eman zion, hankartea apur bat irekiz. Eta hark berehala topatu zuen, meloi

heldu ireki berrien antzera urtsua, bustia, gozoa. Meu coraçao... entzun zuen haren ahotik, meu coraçao... Orduantxe ulertu zuen Joxanek, neure bixotza... hiri arrotz hartan hainbat urte eman osteko benetako altxorra.

– Meu coraçao...

– Bixotza...

Izaren artean eman zuten eguna, Joxanen arrebak deitu arte... Arratsaldeko zortziak-edo izango ziren Joxanek telefonoaren hotsa entzun zuenean. Betiko galderak gurutzatu zituzten hasieran, zelan zaude, zelan aita eta ama, zelan Coruñan eta halakoak. Haien ostean isiltasuna nagusi Joxanen ezpainetan. Adi arrebak esandakoari.

Bibik, zigarro pare bat ateratzen ari zela, telefonoa berriro mahai gainean zelan uzten zuen entzun zuen. Zigarro biak isiotzean, kristal baten apurketak ekarri zion zarata.

– Akabatu egingo diat!

Joxanen oihuak burua bueltarazi zion Bibiri. Eta begien aurrean Joxan esku batez horman bermatuta. Beste eskua odoletan, zintzilik beza-

la. Eta sukaldeko atearen kristala hamaika puskatan kraskatuta.

– Akabatu egingo diat! –errepikatu zuen Joxanek, samako zaina hanpatuta.

– Joxan –Bibi ohetik altxatu eta toalla bat ekarri zuen komunetik–. Zer gertatu da, laztana?

Zigarro isiotu bat eskaini eta esku odoldua toallan bildu zuen odoljarioa gelditu nahian.

– Zer gertatu da? –errepikatu zuen.

– Txerra...

– Txerra? Nor da Txerra hori? Laguna duzu?

– Nuen... laguna nuen... Hil egin zen ni hona etorri aurretik. Hil egin zuten, esan beharko dut hemendik aurrera. Segada batean hil zuten... bai.

– Horretan egiten duk lan? –diotso Anjelek.

Anjelen galderak oroitzapenetatik ekarri du Joxan, Txerra segada batean hil ziotela jakin zuen arratsalde hartatik.

– Gimnasio Neira, horretan egiten duk lan? –errepikatu dio galdera, beste zerbeza botila bi basoetara ateratzen ari dela.

– Bai... –diotso Joxanek, goiko ezpainean geratu zaion aparra mihiaz garbitu ostean.

– Agirreren esku luzea ibili zuan baita ere hi boxeo zirkuituetatik botatzeko, ez duk?

– Jakina. Zer ez zian hark kontrolatzen! Dena zaukatek kontrolpean putakume hauek, dena! Hasieran ezin zian nirekin, badakik. Hainbat aldiz aurre egin nioan, eta hori ezin barkatu. Ondo dakik hik ere, edo eurek gura dutena egiten duk edo kale bazterrera hoa, horrela, beste barik.

Joxanek zigarro pare bat isiotu du.

– Akordatzen haiz zein izan zuan ni hemengo boxeotik botatzeko erabili zian aitzakia?

– Tongo batean sartu hintzelako, ezta?

– Bai, baina ez berak esan zian moduan, ez. Hemen Bilbon antolatu zuten konbate batera deitu zidatean, eta hara heldu eta badakik zer ikusi nian? Aurreko egunean KOz galdutako morroi koipezaku bat ipini zidatean aurrean. Lutxana aldeko morroi bat, Roke izeneko bat, boxeorako zahartu xamarra. Ba... horixe, nire kontra aritu behar zuena gaixorik ei zegoan, gripeak jota edo zer zakiat nik. Eta konbate hura bertan behera ez uztearren koipezaku hura ipini zidatean aurrean. Bezperako zauriak eta beltzuneak zeuzkaan oraindik... eta nekea, zer esanik ez.

– Baliogabetzeko eskatuko huen!

– Ez zidatean onartu. Hura etikoki ez zela legala esan niean, morroi hura ez zegoela borrokatzeko baldintzetan, oso arriskutsua izango zela berarentzat...

– Baina Agirreren eskua handik ibiliko zuan...

– Horixe, antolatzaileak putakume horren ipurtzuloan miazka ari zituan. Borrokan egiteko, osterantzean ondorio latzak etorriko zitzaizkidala.

– Eta borrokatu egin huen hala ere...

– Bai, baina hasi baino lehen esan nioan ez zegoela borrokatzeko moduan, arrisku handian jarriko zuela bere burua.

– Ez zian atzera egin?

– Ezingo zian! Antzezlana egingo genuela xuxurlatu nioan belarrira, indar gabeko kolpe handi batzuk emango nizkiola, eta berak hirugarren roundean lurrera botako zuela bere burua... eta, jakina, handik ez altxatzeko. KO antzeztua, eta kito.

– Baina dena pikutara joan zuan.

– Ez zitean sinetsi eta Federaziotik bota ninditean... Tongoa egin izanaren akusaziopean bota

ninditean. Huraxe nire agurra ring gaineko hamabi sokei. Oraindik gogoratzen diat Agirre putakumearen irribarre maltzurra, epaileek tongoa egin nuela erabaki zutenean. Bertan erabaki eta bertan sinatu... Agirrek planifikatutako amarrua izan zuan!

– Kolpe gogorra hiretzat, bai, ondo akordatzen nauk. Eta zelan orain Galiziako gimnasioan?

– Ezin kexatu...

Anjelek beste koadrila bat zerbitzatzera joan behar izan du.

Zelan orain Galiziako borrokak... Anjelen azken berbak bueltan etorri zaizkio Joxani burura, halako oihartzun lauso batez, eta ezin izan du ezpainetan irribarrea eragotzi. Susoren barre algarak, portuan eta kostaldeko zulo ezkutuetan egindako ilunpeko negozioak, ukabilen dantza... hori guztia etorri zaio Anjelen berbekin.

Pattar botilen ondoko irratian musikaren bolumena jaitsiz doa esatariaren ahotsa sartzen den neurrian. Santurtzi aipatu dute, eta hango uretara jausitako etorkin baten zoritxarreko patua.

Izerdia tantaka jausten zaio galtzarbeetatik, bizkarrezurretik... Eskuaz sikatu du bekokia. Zerbeza larregi halako egun sargoritsu baterako, pentsatu du, edandakoa agudo iragazten da larruazaletik Gimnasio Neira iragartzen duen niki horira.

Gintonika, erabaki du beste winston bat isiotzean, horixe eskatuko diat hurrena, gintonik zoragarri bat.

–11–

Reggae dub honen doinuak harrapatu egiten gaitu, ez dugu ukatuko, zertarako? Horrela sentitzen zarete? Doinu hauek harrapatuta? Gitarrak joan eta etorri egiten dira, olatuek harkaitzen kontra egingo luketen moduan... eta bateriaren kolpeak, leherketa urrunen antzera, oihartzun gozoak dira, ez duzue uste?

Gainerakoan... zelan doa eguna, lagunok? Hemen, Txirene irratian, egosteko puntuan gaude, lanpernak edo karramarroak bezala, baina ur barik, edo, bueno, ura bai, baina izerdi epelarena, ur gazia, ondoko ur uherroi uste zaiena... Hemen dauzkazue Public Enemy taldearen erritmoak, bidegabekeriari planto egiteko, arrazakeria borrokatzeko, edonor dena dela esateko harrotasunez... eta, zergatik ez, kalean dauden 33 graduek eragindako girorako ezin egokiagoak.

1989 the number another summer

sound of the funky drummer

music hittin' your heart

'cause I know you got soul

(brothers and sisters, hey)

listen if you're missin' y'all

swingin' while I'm singin'

givin' whatcha gettin'

knowin' what I knowin'

while the Black bands sweatin'

and the rhythm rhymes rollin'

got to give us what we want

gotta give us what we need

our freedom of speech is freedom or death

we got to fight the powers that be

lemme hear you say

Fight the power

Elvis was a hero to most

But he never meant shit to me you see

Straight up racist that sucker was simple and plain

Mother fuck him and John Wayne

'cause I'm Black and I'm proud

I'm ready and hyped plus I'm amped

Most of my heroes don't appear on no stamps...

Santurtziko uretara botatako etorkinaren gaineko informazio gehiago heldu zaigu. Azken berriek zera diote, haurdun dagoen emakumeak ez duela bere burua bota, baizik eta Poliziaren jazarpenak bota duela... halaxe ikusi uste izan dutela haren lagunek. Bertara joan den epaitegiko langile bati atxilotutako beste etorkinek esandakoaren arabera, kubertara igotako hainbat polizia borrokan aritu dira emakumearekin eta, antza, kolpe eta bultzaden eraginez jausi da uretara. Beraz, erantzukizuna Poliziaren jardunean ei dago. Hori izango da hemendik aurrerantzean politika nagusia etorkinekin? Jo eta uretara bota lazunek jan ditzaten? Bada garaia hemendik antolatzeko beharra gurera datozen etorkinei laguntza eskaintzeko, Poliziaren atzaparretan ez daitezen jausi laguntzeko... Gogoratu, bestela, ur hauexetara bertora, Seven Seas Spray eta halako itsasontziak zelan etorri ziren laguntzarekin gerra garaian... Euren herrietara eramanez umeak gerraren triskantzetatik babesteko... Halako internazionalismo besarkada bat eskaini beharko genieke desesperaziotik alde egiten dute-

nei. Hemen duzue mikrofonoa deitu nahi duzuenentzat...

Tira, esan eta egin, badirudi berba horien zain zeundetela, ezta? Lee «Scratch» Perry-ren musika jaitsi egin beharko dugu... telefonoa martxan jarri da eta.

– Bai? Nor daukagu bestaldean?

– Amaia.

– Egon, musikaren bolumena apalduko dut...

– Amaia naiz. Arangoititik deitzen dizuet.

– Arratsaldeon. Zer dela-eta zure deia?

– Aipatu duzun berri horren harira deitzen dizuet, alegia, uretara botatako emakume etorkinarena...

– Zer daukazu esateko?

– Zelan gertatu den entzun ostean idazle batekin akordatu naiz, halakoen inguruan borrokan ibili zelako...

– Eta nor daukagu idazle hori, Amaia?

– Jean Genet, idazle frantses disidente eta marjinala... oso interesgarria niretzat, Europako kultura ofizialak baztertu egin badu ere.

– Bai, ezagutzen dugu Genet, bai. Susa argitaletxeak kaleratu zuen haren liburu bat, orain dozena bat urte baino gehiago, uste dut...

– Geneten bi lantxo argitaratu zituzten liburu bakarrean, bata espetxe baten barruan kokatutako antzezlan bat, eta bestea Xatilako palestinar errefuxiatugunean egindako sarraskiaz.

– Horren harira ekarri duzu Genet?

– Bueno, etorkinak uretara botatzearen antzeko zerbait egiten zuten Parisen 60etan. Aljeriako gerra pasatu berria bazen ere, Poliziaren bortizkeria izugarria zen jatorri aljeriarreko jendearekin, bai. Hain izugarria ze ohiko bihurtu zen gorpuak Sena ibaiko ur gainean topatzea. Gorpu haiek beltzunez eta zauriez josita egoten ziren, marka bortitzak larruazalean.

– Poliziak hilak?

– Bai, zalantza barik, Poliziak jipoitu eta torturatu egin zituen haiek azken arnasa eman arte. Aljeriako gerra oso gogorra izan zen, eta horrek, nahiz eta gerra amaitu, gorroto itzelak eragin zizkion Frantziako gizarteari, batez ere sektore atzerakoietan eta Poliziaren goiko eta beheko koadroetan. Aljeriar haien kontrako Poliziaren

razziak etengabeak izan ziren, lar ezkutatu barik, eta bortizkeria hark hainbat hildako ekarri zituen. Sena ibaian ohikoa bihurtu zen aljeriarren gorpuak agertzea... Genet, beste batzuekin batera, Sartre, esaterako, xenofobia faxista haren kontra aritu zen, ahal zuen foro guztietan hura salatzen...

– Amaia, orain gogoratu dut Jean Geneti eskainitako abesti bat, duela aste batzuk hemen Txirenen ipinitakoa, horregatik etorri zait gogora. Uste dut Genetek bizi izan zuen espetxe egoera baten giroa dakarrela.

– Hainbat espetxe ezagutu zituen Genetek, espetxeak eta bestelako marjinalitate guztiak. Handik etorri zitzaion bere disidentzia puntua, iraultzailea baino, matxinatua izatea, bizi izan zuen gizarte haren kontrako matxinatua. Eta matxinada pertsonal hartatik beste borroka batzuetara hurbildu eta lagundu egin zuen. Ezagguna da Estatu Batuetako Black Panthers taldeari emandako laguntza eta elkartasuna, azal iluneko jendeari, palestinar borrokari... Estatuek ez dauzkate halakoak gustuko.

– Ez, argi dago, Amaia. Hemendik zera espero dugu, Santurtzikoaren inguruan berri gehiago izatea, eta, jakina, kontu hau ahalik eta ondoen amaitzea. Eskerrik asko deitzeagatik, Amaia, halako deiak eskertzekoak dira, zelan ez. Adi eta erne egon beharra dago, entzuleok. Hortxe doa lehen aipatu dugun abestia, Shane MacGowan and The Pogues-en *Hell's Ditch, Infernuko bazterzuloa,* Genetek espetxeetan bizi izandako oinazeen inguruan idatzi eta musikatua.

Bizitza kaka puta bat da, gero hil egiten zara.
Infernu beltza
Infernuko bazterzuloa
Biluzik eta, askatasuna ahoan, garrasika,
Hiltzailearen eskuak kateez lotuta daude,
seietan euria hasten da,
ez du sekula berriro goizalba ikusiko.
Gure Andre Loreetakoa!

Genet Ramonen zakila gozatzen ari da,
goiko literan dagoen morroia gaixorik dago,
ondoko ziegan, zoroa,
ama ahotan, oihuka ari da.

Dildo beltza, infernu beltza!

Espainiako poliziek nire gel-kremari barre egin zioten,

umiliatu egin ninduten,

Komisaldegiko argazkia, ondo gogoratzen dut.

Gizon txikia, zelan sufritu duzun...

–12–

Ginebrak laztandu egiten ditu izotz puskak. Hauen artetik laban egin eta basoaren ipurdian batzen da. Ondoren tonika osoa. Limoi zati bati zukua atera eta basoaren ezpainak igurtzi ditu Anjelek. Eskuak amantalean garbitu eta aurrera hurbildu dio Joxani. Honek winstonarekin ke urdinezko zirimolak eginez eraman du ahora.

– Dozena bat edango nitizkek...

Anjel baso batzuk trapuaz sikatzen ari da.

– Ez zekiat zergatik, baina ematen dik badaukaala beste zerbait buruan bueltaka...

Asun sukaldetik irten eta Joxanen ondoan gelditu da.

– Banoa, Joxan... Gustatuko zitzaidan zurekin berbetan apur bat egotea... Lagun batekin geratua naiz eta lehenago gauza pare bat egin behar dut... Ondo segi.

Elkarri begira geratu dira biak, isilik, garai hartakoaz berba egitea merezi ote duen asmatu nahian-edo.

Asunek keinu batez agurtu ditu biak, Joxan eta neba. Kalean gora abiatu da, bero sapa honen pean.

– Zerbait daukak buruan bueltaka...

Anjelen berbek barrara itzuli dute Joxanen arreta. Gintonikaren izotzekin olgetan hasi da.

– Arrebak kontu bitxi bat esan zidaan orain aste batzuk –diotso Joxanek, zigarroari kalada luze bat hartu eta hodei bat jaurtita–, Txerraren heriotzaren gainean.

– Aspaldiko kontua duk hori... Lehergailua esku artean zartatu zitzaioan, eta akabo!

– Bai, hala duk, lehergailua esku artean zartatu zitzaioan, bai, baina, antza –eta ahotsa nahita apalduz– segada baten ondorioz.

– Segada bat? –burua makurtu eta musutik zentimetro gutxira egin dio galdera, inork ez entzutea nahi balu bezala.

– Ondo aditu duk: segada.

– Txakurrek egindakoa...

– Jakina. Baina beste batek antolatua!

– Zeinek ba?

– Ezin diat oraindik ziurtatu, baina, agian, gaur bertan jakingo diat.

Anjel, basoak sikatzeari utzi barik, mutu geratu da. Aspaldiko zauri bat ireki da.

– Nondik atera duk hori? Urte asko pasa dituk...

– Informazioa, gorpuak ez bezala, ez duk usteltzen. Hori bai, halakoak gutxitan azalera daitezkek... Eta Txerraren kontuari dagokionez, ba, begira, arrebak arrasto batean ipini nindian...

– Eta berak zelan...

– Horrek ez dik ardura, Anjel. Segada batek bidali zuela kanposantura, horrek dik garrantzia.

– Zeozer dakianean esango didak?

Hiru ardo eskatu dituen bezeroarengana joan da Anjel.

– Bai... edo ez. Ez zakiat merezi duen... –esan du Joxanek, Anjelek aditu ote dion ardura barik.

Hik potroak dauzkak, Joxan, erabiltzen jakin beharko huke... Txerraren berbak etorri zaizkio akordura. Hik potroak dauzkak, Joxan, erabiltzen jakin beharko huke... Horiexek esaten zizkion noizbehinka. Gintoniketik beste trago bat jo eta zigarro bat isiotu du. Eta Txerrarekin batera Playabarriko txabola-biltegia etorri zaio gogora. Jendearen begiradetatik kanpoko leku bat behar

diat, Joxan, gauza batzuk gordetzeko leku ezkutu bat, besterik ez. Ez diat gehiago eskatuko. Halakorik errazten badidak nahikoa egin duk, benetan.

Joxanek oraindik gogoratzen ditu bariku gau urrin batean Txerrak esandako berbak. Gau hartan, zerbeza batzuen inguruan, ez zion zertarako galdetu. Ondo zekien ez ziola egiarik erantzungo, edo zehatzago esanda, ez ziola ezertxo ere erantzungo. Eskaera haren nondik norakoa ordurako igartzen zuen. Galderek ez zeukaten lekurik. Lortzeko ahaleginetan zetzan hurrengo pausoa. Kito. Handik minutu erdira Athleticen azken partidua ekarri zuen Txerrak hizpidera, lehenago esandakoa haien arteko girotik desagertu nahi izan balu bezala. Hala ere, argi zegoen eskaera hura buruan bueltaka edukiko zuela Joxanek, eta lehenago edo geroxeago erantzun egingo ziola. Handik astebetera giltza bat eman zion Txerrari, Playabarriko txabola-biltegikoa. Garai hartan, Joxanek, boxeorako entrenamendu gisa, etxetik lanera egiten zuen korrika. Ganguren aldetik, Egirleta eta Artxanda igaro, eta Enekuritik, Fatimaren elizaren ostetik aldapan behera, lanera,

Lutxanako tailerretara. Hantxe eranzten zuen txandal izerditua, eta laneko buzoa jantzi. Halako egun batean, Enekuritik Lutxanara jaistean, sasi arteko bidezidorrean gelditu eta handik goitik ikusten zen paisajeari begira geratu zen, arnasa berreskuratu nahian. Kadagua eta Asua ibai zikinek kolore ilun askotako ur kutsatuak isurtzen zituzten itsasadar are kutsatuagoan, opari gisa. Metalezko ortzadar azidoa hedatzen zen Lutxana bien arteko ur astunetan. Sefanitroko tximiniek eta gasek Barakaldo ezkutatzen zuten, eta ur bazterren gainetik mota guztietako txatarra, kargak eta garabiak paraje haien jabe bihurtzen ziren. Desolazio ukitua oro har. Eskuma aldera begiratu ostean baserri solte batzuk industria astunaren eremu baten erdian. Orduantxe ikusi zuen txabola-biltegia, berak lan egiten zuen tailer erraldoi haien osteko Playabarri auzo txikian. Hantxe gordetzen zituzten trenetan ordurako balio ez zuten hamaika pieza: motorretakoak, bagoietakoak... edo bestelakoak. Eurak, Joxan eta beste lankide pare bat, oso gutxitan joaten ziren hara. Eta joan behar zutenean di-da bateko kontua izaten zen. Joan, pieza

utzi eta ahaztu, besterik ez. Bost urtean behinedo, txatarra biltzaileari deitu eta hark hustuketa egiten zuen kanposantu industrial txiki hartan. Txatarra biltzailea aurreko urtean pasatutakoa zen, beraz, leku segurua iritzi zion txabola-biltegiari.

– Zer duk, kopia bat? –galdetu zion Txerrak.

– Bai, baina lasai joan haiteke. Beste pare bat eta hirurok baino ez gaituk joaten. Hori eguerdia baino lehenago izaten duk, beraz, hortik aurrera, arratsaldean zein gauean arazo barik joan haiteke.

– Ez duk arriskutsua...

– Ez. Hemendik aurrera, gainera, ni neu arduratuko nauk txabolara piezak eramateaz. Lasai egon hadi. Hik topatu egik han, atzealdeko txatarra artean lekutxo bat eta ziur egon ez diala inork trabarik egingo.

– Hala izan dadila... osterantzean...

Giltza eman ostean hurrengo zapaturako geratu ziren, Asua aldetik joanda, bertaratu eta erakusteko. Erreka pasa ostean, txabola-biltegira eraman zuen Joxanek. Txerra bakarrik sartu zen barrura. Hogei minuturen buruan bueltan

zeuden erreka osteko errepide nagusian, eta, kontuari garrantzia kendu nahian, lehengo tren zaharrez berbetan joan ziren Lutxanako taberna batera.

– Hemendik aurrera kontua nirea duk –esan zion Txerrak.

Zerbeza pare bat hartu eta kanpora irten ziren, itsasadar gaineko petrilean jesartzera.

– Halako baten modukoa haiz hi –esan zion Txerrak, haien aurrean ur zikina ebakitzen ari zen atoiontzi bati begira–, ez lar handia, baina indar sendoa motorrean...

Txerraren berbak gogoratzeak irribarrea marraztu dio Joxani musuan, eta orduan konturatu da zigarro osoa erre zaiola ahoratu barik. Indar sendoa motorrean, bai, pentsatu du errautsa barratik zorura bota bitartean, begira, Txerra, zertan erabili dudan indar sendoa.

– Beste bat?

Joxanek ezer erantzun aurretik beste baso bat ipini dio Anjelek. Di-da batean izotz puskak bota eta beste di-da batean ginebra eta tonika.

– Atxurtu egin gura nauk?

– Ikusita hemendik zenbat bider agertzen haizen, ba... zaindu egin behar haut, ea horrela maizago egiten didaan bisita.

Segi kolpeka Europa gotorlekuko harresietan, horrela entzun dio irratiko esatariari, segi kolpeka Europa gotorlekuko harresietan, edonon, edonoiz. Eta ostean kanta gogor baten doinua barreiatu da tabernan. Zapia atera eta berriro sikatu du samatik jausten zaion izerdia. Etsaia borrokatu, berbak bueltaka hasi zaizkio buruan, bihotzean, zainetan... Ondo gordeko du esanahia.

–13–

Ondo doaz arratsaldeko ordu ezin beroago hauek, lagunok? Leihoan daukagun termometroan oraindik 33 gradu, eguzkia teilatuen gainetik aspaldi ezkutatu bada ere. Hau da hau laztan sargoria! Itsasadarrean gora, honaino, gure pare-pareraino, marrazo tropikalak sartu direla esaten badiguzue sinetsi egingo dugu, birritan pentsatu barik... edo, zergatik ez, Martzaako mollatik musker erraldoi eta geldo horiek paseoan dabiltzala esanez gero. Bero sapa honekin horiek eta bost sinetsiko genituzke. Basamortuan bezala, bero ikaragarri honek eragiten dituen aluzinazioak eta hamaika gehiago gustura irentsiko genituzke. Edozer gauza eguneroko ohikeriatik alde egiteko, ez duzue uste?

Izerdi lametan gaude. Eskerrak noizean behin beheko tabernatik garagardo hotz batzuk ekartzen dizkiguten, osterantzean sikatu egingo ginateke gela itxi honen barruan, bakailao bihurtuta. Baina bakailao dantzaria, aizue, pil-pilean reggae, Ferminen disko berriak mokorrak dan-

tzan ipintzen dizkigun moduan. Entzuten duzue lagunok?

Feel this music in your body
This rhythm will catch us and
take us to another dimension
Hey! The roar of the shock
between The Basque Country and Jamaica
will make the earth vibrate
Hasieran izan zen scratch bat
Gero etorri zen big bang-a
Leherketa erraldoia
Zulo beltzetik su bola
Euskal Planeta espazioan
Eta Reggae Boyz-en baloia
Bi herrien arteko talka
Sustraietatik helduta
62an gu laster batean
Independentzia. MORE FIRE!
Euskal Herria Jamaika Clash!!!

Pil-pilean eta dantzan jartzen gaituzte cd barruko liburuxkan agertzen diren irudiek ere... Malcom X eta Txabi Etxebarrieta, Joe Strummer,

gitarran «This machine kills fascists» idatzita daukan Woodie Guthrie, Intifadaren gazteak, Pantera Beltzak... Zer gehiago?

Euskal Herria Jamaika Clash
Kingston ere bai Nafarroa baita
Euskal Herria Jamaika Clash
Sakanako panterak, Maroon lehoiak!

Bolumena apalduko dugu apur bat... dei bat daukagu, lagunok, telefonoaren argi gorria piztu da gure ondoan.

– Bai? Nor daukagu bestaldean?

– Julian Sangroniz, Juliantxu, nahi baduzue, halaxe esaten didate lagunek...

– Ederto, Juliantxu. Nondik deitu duzu?

– Montecaramelotik... badakizu non dagoen?

– Bai, hantxe Basurtu gainean, aldapa malkartsu ederrean.

– Bai, jauna, balkoi itzela da gure auzoa... Non dagoen galdetu dizut jendeak ez dakielako hau existitzen denik ere. Gran Via, Guggenheim eta Euskalduna jauregia Bilboko leku bakarrak

direla uste dute gehienek... Badakizu zelan saltzen duten Bilbo berri hau.

– Ahotsagatik, eta ez egizu txarto hartu, ni baino nagusiagoa zara, ezta? Alegia, nik baino askoz hobeto ezagutuko duzu Bilbo.

– Ezagutuko ez dut, ba! Urteak dira erretiroa hartu nuela, bai. Laurogei urteen bueltan nago, eta mundura etorri nintzenetik Botxoan bueltaka, Zazpi kaleetan ezkondu arte, eta handik aurrera hemen, hiri gaineko balkoi honetan...

– Ederto, Juliantxu... Zer dela-eta zure deia?

– Alabak irratia piztu eta hona ekarri dit, etxe aurreko gerizpe honetara... ondo nago hemen...

– Haize leun apurtxo bat izango duzue goialde horretan... Baina zer esan behar zenigun?

– Ba, begira, irratitik entzun dizuet ibaian zelan agertzen ziren hilotzak, bai?

– Bai, hala da, beste dei batetik jaso dugu informazio hori...

– Hemen, itsasadarrean halakoak agertzen ziren gu umeak ginela, bazenekien?

– Ideiarik ez.

– Ba, bai, jauna, hilotzak itsasadarrean gora eta behera, eta dena Krone zirkuaren erruagatik...

– Krone zirkua? Ez dut inoiz entzun...

– Gaztea zarelako. Zirku hura Bilbora etortzen zen orain urte asko, La Campa de los Ingleses izeneko lekura. Gaur egun Guggenheim eta La Salve zubi arteko eremu horretan ipintzen zuten karpa erraldoia.

– Izen hori...?

– Izen hori han zegoelako ingelesen hilerri bat. Uste dut azken karlistadan hildako ingelesentzat propio egina, orduan irlatxo bat osatzen zuen eremu batean...

– Juliantxu, uste dut kontatzen ari zaren istorioan galtzen ari naizela... Hilotzak aipatu dituzu, ezta?

– Bai, banoa harira. Krone zirkua erraldoia zen, garai hartarako oso ikusgarria. Piztia ugari ekartzen zuten: lehoiak, tigreak eta halakoak... denak beldurgarriak.

– Oraindik ez dut hilotzen kontua ulertzen...

– Garai hartan miseria handia zegoen hirian, pobrezia ikaragarria. Jendeak edozer gauza as-

matzen zuen aurrera egiteko, diru apur bat lortzeko, badakizu...

– Horrek krimen tasari eragiten zion, beraz.

– Ez, ez, kontua da Krone zirkuko piztiek jan egin behar zutela, eta asko gainera, eta astoak eta mandoak garraio lanetarako alokatzen zirenez, ba, pentsa egizu zer gertatzen zen...

– Barkatuko didazu, baina ezin dut zer gertatzen zen asmatu.

– Ene, inozo halakoa! Asto eta mando haiek, alokatu ostean, saldu egiten zizkietela zirkukoei, piztien bazka bihurtzeko.

– Astoak eta mandoak piztien jana...

– Bai, eta hondarrak, alegia sobera geratzen zena, buruak, hanka zati batzuk, hezurdurak eta larruak itsasadarrera botatzen zituzten... Eta hortik mareak gora eta behera eraman eta ekarritako hilotzak.

– Juliantxu...

– Hark haserre handia piztu zuen haiek alokatzen zituzten negozioetan, argi eta garbi dagoenez, eta...

– Juliantxu, entzun...

– Gauza bera itsasadarraren ondoan bizi ziren auzokoen artean. Ez da txantxetako kontua, ez duzu uste? Batzuk zera apuntatu zuten prentsan, hura guztia sekta deabruzale baten kontua zela, eta bai Elizak bai Poliziak neurriak hartu behar zituztela gertakarien gainean...

– Begira, Julian, aurreko deian aipatutako hilotzak bestelakoak ziren, giza hilotzak, eta ez zuk diozun...

– Eta kaleetako txakurrak eta katuak eta halakoak ere hara eramaten zituzten zirkukoei saltzeko. Aizu!, gose handia zegoen urte haietan, gose larria... Baten batek amaginarreba bera ere salduko zien ahal izanez gero, zer uste duzu!

– Uste dut txarto ulertze bat izan duzula hilotzen inguruan, eta...

– Gose handia, aizu, gaur egun irudika ezin daitekeen gosea. Eta hala ere, orduko kontuak gogora ekartzeak barregura ematen dit... ja, ja, ja! Mandoak eta astoak hara eramanda, Belenera joango balira bezala, eta bildotsen ordez txakurrak eta katuak... tragikoa, bai, baina umore handiz gogoratzen dut...

– Bueno...

– Bai, hori izan da dena, pentsatu dut zuek jarritako gaiari ondo zetorkiola, gurean ere halakoak gertatu direlako... zer uste zenuten, ba? Tira, utzi egingo zaituztet, larregi egin dut berba eta nekatu samar sentitzen naiz. Aurrera, eta agur.

– Aurrera eta agur, Julian. Eskerrik asko.

– Ez horregatik, agur.

Tira, inkomunikazio eredu xelebre honen ostean, eta halakoak noizean behin izan bitez... ba... aurreko berri triste hura dela-eta, zera esan behar dizuet, Santurtziko gertakariez gauza gutxi dakigula. Emakume haurduna ez dutela oraindik topatu, nahiz eta Poliziaren zodiak batzuk hara eta hona ibili hango bazterretan. Atxilotutako etorkinak komisaldegira eramanak izan dira Sea Eagleko kapitainarekin eta besteren batekin batera. Latza izan behar du halako egoera batean egotea, are latzagoa emakume haurdun horren bizia arriskuan egonda. Hauxe duzue gure Europaren politika, hirugarren mundu delako horretako gizon-emakumeekiko elkartasuna. Mugak ixtea inolako gizatasunik gabe eta Europa gotorleku bihurtzea. Zer egin Europa gotorleku honen aurrean? Harresiak txikitu, birrindu, apur-

tu... Horixe duzue hurrengo kantak aldarrikatzen duena, Europa gotorlekuko harresiak apurtu, harresiak apurtu arte kolpeka, gelditu barik kolpeka... Asian Dub Foundation, *Europe Fortress* kantaren doinuaren indarra.

...segi kolpeka Europa gotorlekuko harresietan
segi kolpeka
segi kolpeka Europa gotorlekuko harresietan
hauxe duzu 21. mendearen exodoa!
hauxe duzu 21. mendearen exodoa!
eskubidea daukate,
ez entzun beldurra zabaldu nahi duenari
nork ez du hanka egiten goseak akabatzen dagoenean?
Jendea burokraziaren paperen amesgaiztoetan harrapatuta
Ihes egizue atxiloketa zentroetatik
Ebaki burdin sareak eta txikitu kupoiak,
Zaudete prest, lagunok, bada esnatzeko garaia...
Bota itzazue Europa gotorlekuko harresiak!

–14–

Zigarroa ahoan, komunean sartu da Joxan. Taberna nahikoa bete da honezkero, lanetik irtendako batzuek aterpe hartu dute berton, zerbezaren bat edo halako zer edo zer eztarriratzeko asmotan. Gaurko giroak zurrutada freskoa eskatzen dio edonori. Bero sapa honi popatik emango dion zer edo zer. Bezeroen artetik abiatu da komunera. Hantxe, horman egindako marrazkiei eta idatziei begira hustu du puxika. Barreneko ur guztiak larruazaletik hanka egina ziola uste zuen, baina ez, komunzulotik behera doa txiza, eguzkia bezain hori. Denetarik irakurri du komuneko horma zikinean. Marrazkien artetik itsas lamia baten irudira zuzendu du begirada. Itsas lamia erotikoa, erabat. Hari begira geratu da luze, gogoa Urbano Lugris lagunarekin egon zen azken arratsaldera joana, hark amaitzeko puntuan zeukan koadro epiko ederrera. Hantxe, dozenaka irudiren artean, irudi eta kolore zirimola hartan, itsas lamia beltzaran bat ageri zen irla txiki baten ondoan.

– Gaurko zeruaren kolorea dauka horrek –esan zion itsas lamiari atzamarra zuzenduta.

Itsasaldetik galarrena zekarren. Inguruko kaioak alde egiten ari ziren Santa Mariña gaineko basoetara. Txalupa txiki batzuk porturatzen ari ziren, zeruak iragartzen zuenaren beldurrez.

– Itsasoan ere kolore guztiak daude, nahasiak zein garbi-garbiak, lehorrean bezala –esan zion Urbano Lugrisek–, eta dena da erlatiboa kolore horietan, zeruaren arabera, orduaren eta eguzkiaren arabera... argia ezberdina da beti, eta horrek aldatzen dizu ikusten duzunaren kontrastea. Ez al da horrela gertatzen bizitzan?

Arrazoi hura onartzen zuelako seinalea egin zion Urbanori. Aldi berean estuago heldu zion Bibiri gerritik. Honen adatsen artean ezpainak sartu eta sama musukatu zion.

– Kostalde luzea egin duzu koadro honetan. Horko irla horiek benetakoak dira?

– Bai –margotzeari utzi barik–, horiek Sisargas irlak dituzu. Hiru dira, Sisarga handia, Malante eta Sisarga txikia. Haien inguruan zakar ibiltzen da itsasoa, inork uste baino zakarrago. Ho-

rien inguruetatik ibili ziren orain mende asko zure Herritik etorritako baleazaleak ere...

– Euskaldunak ur hauetan?

– Honaino heldu ziren Ternuara joan aurretik. Irla haien aurrean, lehorrean, Malpica herria duzu. Hantxe ematen zituzten neguak, aterpetuta... Zu bazter hauetara etorri aurretik izan dugu euskaldunen berri, baina orain hori guztia ahaztua da, beste abentura eta miseria guztiak bezala.

– Ontzi horiek baleazaleak dira? –koadroan margotutakoez galdetu zion Bibik.

– Ez... izan zitezkeen, baina ez, ikusten dituzuen marinel horien abentura latza ekarri dut koadrora, benetako abentura... Nire lanetan, ikusi duzuenez, itsasoa da nagusi: arrantza, urpeko bizitza, nik ikusten ditudan biztanleak... haietako asko zuentzat sinesgarriak ez badira ere... eta irlak, eta faroak... baina oraingoan izua eta beldurra etorri dira mihisera. 36an, gerra anker haren hasieran Malpicako hogeita sei marinelek hiru ontzitan egin zuten ihes, Galiziako ur hauetatik Frantziara. Euren gainera zetozen heriotzetatik ihesian, zure kostaldeko argiak ikusiko zi-

tuzten pozik, gertu zeuzkaten portu libreen esperantzaz.

Urbanok esandakoak mutu utzi zituen Joxan eta Bibi. Koadro luze-luze hark hasieran lasaitasuna ematen bazien ere, Urbanoren azalpenekin egonezina jabetu zen euren barrenaz. Izua, beldurra... ihesa.

– Kostalde osoan zehar, Sisargas irletatik, Malpicatik, Asturiastik... zure kostalderaino gorria eta berdea nahastu ditut, berdea delako lur horien kolorea... eta gorria, odola gelditu gabe isurarazi zelako. Odola litroka bazter hauetan, eta zuenean, eta leku guztietan... Lur hauetara etorri zen Federico Garcia Lorca poeta, bai, etorri eta galegoz idatzi zituen sei poema, sei poema eder... Orduko Santiagoko alkateak, Anxel Nasal-ek, Nós argitaletxean kaleratu zituen. Eta badakizu zer?... egun berean, mila kilometroko distantziaz, biak fusilatu zituzten... Hantxe geratu ziren, lurrean zulatuta... inolako begirunerik gabe hantxe botata. Ez ditut banderak maite, baina oihal josi eta margotu horiek zer edo zertarako balio badute, gure poeta hilen hil-

kutxak janzteko izan beharko litzateke. Odola etengabe lur hauetan...

Urbanoren pintzelak dantzan zebiltzan olatuen artetik ageri zen balea saldo batean.

– Oraindik ere odolaren gorria igartzen dut zure kostaldean... –esan zuen Urbanok, eta Bizkaiko itsasoaren lehorreko erpinean giza irudi txiki bat margotu zuen–. Hauxe zara zu, gorri iluna...

Joxani areagotu egin zitzaion barreneko egonezina. Bazirudien Urbanok, itsasoari begira bezala, bihotz barruko kontuak ikus ziezazkiokeela. Biluzik sentitu zen, bazter haietako ura bezain garden... Urbanoren begien aurrean ezer ezkutatu ezin izango balu bezala. Bibiren gerritik aldendu eta, zigarro bat isiotu bitartean, itsasoak miazkatzen zituen harkaitzetara abiatu zen... arnasa berreskuratu nahian.

Handik ordu laurdenera, hirurak Urbanoren txabolara bidean jarri ziren. Galarrenak bazter haiek jotzen zituela, berbetan eman zuten denbora, beste arrantzale batzuekin batera, oruxo botila pare baten inguruan.

Zergatik jakin barik, arratsalde hura Urbanorekin azkena izan zitekeela igarri zuen Joxanek. Egun batzuk lehenago arrebak egin zion deiak Euskal Herrira bidean jarriko zuela erabaki zuen. Txerraren heriotza argitu behar zuen, segada izan zen ala ez argitu. Eta horrek zalantzan jartzen zion beste guztia, baita Bibirekiko harremana ere. Arrebak esandakoa egia bazen, dena zalantzan zegoen, kanposantuan edo kartzelan amaituko zuen aukera ere. Berehala, baina, ezabatu zuen hura guztia burutik, oraina bizi behar zuen, eta orain hartan Bibi zegoen, eta Urbano, eta arrantzale haiek, eta itsaso hura... eta zurrutaden artean Urbanok behin eta berriro kostalde hartaz lagun artera ekartzen zituen istorio guztiak.

– Harria eta goroldioa ematen duzue –esan zien Joxani eta Bibiri, mahaiaren erdian jarritako karburozko lanpara zaharraren atzetik.

– Erotuta nauka beltzaran eder honek!

– Maitemindu guztiak San Andres do Teixidora joaten ziren lehen –esan zuen Urbanok–, eta maitemintzeko belarra eskaintzen zioten santua-

ri... A San Andres do Teixido vai de morto o que non foi de vivo.

– Guk ez daukagu behar hori.

– Berdin dio, hara joandakoan maiteminduago etorriko zarete...

– Hara, gure Urbano kristau bihurtu da! –oihukatu zuen arrantzaleetako batek, eta denak barre algara zoro batean batu ziren.

– Hauxe duzue Os Pinos –Urbanoren ahotsak mozkor doinua zuen ordurako–, Eduardo Pondal gure poeta eta bardoak idatzitako galego xumeen himnoa.

Poema gozo jantzi zuen Urbanok besteen isiltasunaren aurrean. Urbanoren ahots atxurtu samarrari haize zakarrak eta euri zaparradak txabolako leihoetako kristaletan eragindako zarata batu zitzaion.

–15–

Bostekoa eman diote elkarri. Irratiak zabaltzen duen musikak eta tabernan dauden bezeroek zurrunbiloa sortu dute euren inguruan.

– Laster etor hadi...

– Espero diat hurrengoan ez luzatzea azken honetan bezala.

– Badakik, taberna honetan nahi adina zerbeza daukak –bostekoa estutzen jarraitzen du Anjelek–. Eta lagun bat ere bai.

– Bazakiat, Anjel.

Ate ondoan apur batean gelditu eta kalean gora abiatu da. Eguzki arrastorik ez. Iluntzen hasia da. Anjelen tabernan egun osoa eman duela iruditu zaio. Kaleko argi xumearen aurrean apurtxo bat bildu behar izan ditu begiak. Beroa ez da lehen bezain astuna, ez. Askoz lasaiago ibil daiteke lehen baino jende gehiago biltzen duen kale honetan. Bertokoak dira tenperatura gozoaren altzoan dabiltzanak. Lana dela-eta, pasatu behar zirenak alde eginda daude. Alaiagoa iruditu zaio kalea. Gazteak, langileak, ijitoak, bel-

tzak... denak daude kale honetako zurrunbiloan, gora eta behera, izkina batetik bestera, taberna honetatik horretara. Hauxe da kale honetako giroa.

Estanko baten aurrean jesarrita, Anjelen aita ikusi du, beste agure batekin.

– Zelan, Tomas?

– Aspaldikoa, Joxan –zutik jartzen saiatu da.

– Lasai, hortxe jesarrita ondo zaude.

Tomasek berriro egokitu du bere gorputz zaharra bankuan.

– Ikusi diat aitaren eskela, pena handiz ikusi ere. Hik ondo dakik zuen aita eta biok lagun handiak ginela, tailerretan elkarren ondoan beharrean hasi ginenetik. Jubilazioak, edo zahartzaroak, deitu egiok nahi bezala, nor bere etxe aurrean zuhaitz ihartu baten moduan jarri bagaitu ere...

– Sasoiko ikusten zaitut, Tomas.

– Hi, gezurrik ez –barre xume batek ihes egin dio ezpain artetik–. Zuhaitz ihartuak gaituk dagoeneko, herioak noiz ebaki eta lurrera bota zain. Baina, tira, orain bezala lagun batekin edo

bestearekin berbetan gauden bitartean, irribarre egingo diagu, ez duk uste?

– Bizitzari eutsi behar.

– Boxeoan jarraitzen duk? –nikian irakurri dio Gimnasio Neira.

– Borrokak utziak ditut, baina jarraitzen dut boxeoaren inguruan, gimnasio batean mutil gazteak entrenatzen eta holakoetan.

– Boxeorako egurra heukan... Eta estiloa... eta indarra, baina...

– Baina bota egin ninduten.

– Ondo akordatzen nauk iruzur hartaz... Bizitza, batzuetan, puta itzela duk.

– Putakume batzuek bihurtzen dute puta.

– Oraindik Agirre hori daukak gogoan...

Baiezko keinua egin dio buruaz, isilik. Eta ezker aldera begiratu du.

– Taberna horretan –kaleaz bestaldeko tabernari seinalatu dio– hasi zinen boxeorako nire burua berotzen, horko leihotik itsasadarrera begira, akordatzen zara?

– Zelan ez, orduan mutil koskortua baino ez hintzen, baina gorputz gihartsua igartzen zitzaian.

– Orduan beste taberna bat zegoen, egurrezko barra, baldosa zaharrak eta itsasadarrera ematen zuen leiho bat. Hara begira jarri eta gabarra gaineko borrokez berba egiten zenidan, boxeolariak gabarra gainera eramaten zituzten txalupez... zubian, San Anton parean eta Martzaako molla honetan biltzen zen jendetzaz... Hura niretzat epikoa zen, nahiz eta gero epikotik ezer ez zeukala konturatu.

– Epikotik ezertxo ere ez. Begira, bestela, bat edo bi izan ezik boxeolari guztiek zelan amaitu duten. Ehundaka kolpe hartuta, batzuk tontotuta, eta duintasunez bizitzeko diru barik.

– Bomba ikusi dut lehen, kale honetan gora...

– Bai, hor zabilek, azokako dendarien mandatuak hara eta hona eramaten, lau txakur txikiren truke... eta lau txakur txiki horiekin arratsaldero mozkortuta, taberna batetik bestera... eta gero bere ama zaharraren etxera batzuetan, eta besteetan kalean, edozein izkinatan botata... Begira zelakoa den epika, hutsaren hurrengoa.

– Oraindik bada taberna horretan leiho hura?

– Lehengo bera duk, baina goitik behera berriztatua, horrela moderno-modernoa, musika

zoro batekin egun osoa, eta ez ni bezalako bezeroekin... Tira, gabarren gaineko istorio haiek ez zituan beste mundukoak. Nik uste diat La Casillako borrokaldietan hartu huela benetako kontzientzia.

– Gure aitari ez zitzaion hura gustatzen...

– Hire aitak futbolean nahi hinduen, edo eskupilotan, edo... ez zakiat, bestelako kirol batean, baina inondik inora ez boxeoan. Basapiztiena zela esaten zian, basapiztiena... eta, batzuetan, horrela, ahopetik, kanpotarren kontua.

– Bata eta galtza zabal eta motz haiekin ikusi ninduen aurrenekoan lotsagarri nengoela bota zidan, ea kabaret batean edo antzeko zeozertan ibili behar nuen.

Barre egin dute hirurek, aitaren ateraldiagatik.

– Eta hire ama? Akordatzen haiz zelan jartzen zen hire ama? Seme hau akabatu egingo didate, akabatu, esaten zian erdi negarrez... Baina, azkenean aitortu beharko diagu Agirre jauntxoak akabatze hartatik salbatu hinduela.

Joxanek zigarro bat isiotu duen aldi berean neska bi sartu dira tabernara.

– Denok akabatuko gaituk –jarraitu du Tomasek– era batean zein bestean, lehenago edo geroago... Baina, hori bai, akabatze duin bat izan dadila, ez duk uste?

– Bai –erantzun dio Joxanek tabernako atea zelan ixten den begira.

Akabantzaren kontura Agirreren aurpegia etorri zaio gogora. Akabatzea. Akabatzea, inongo duintasunik gabe, basapiztia akabatuko lukeen moduan.

– Nik Artxandan akabatu nahiko nikek –diotso Tomasek–. Bazakiat barre egingo didatela, baina hantxe, Artxandako Kasinoaren inguruetan hil zituan gehien maite nituen lagunak, 37ko lubakietan, Bilbo defendatzeko borroka latzetan... Bazakiat urte larregi pasatu direla, ia inor ez dela harekin akordatzen, akabatzeko puntuan dagoen agure zoro baten berbak izan daitezkeela, baina, hi, hori sentitzen diat bihotzetik, barren-barrenetik... Hantxe, Kasinoaren hondarretan, gerra amaitu eta hamar-hamabost urte pasa ostean topatu zitiztean gorpu zatiak, gerriko puskatuak, bota txikituak...

Tomasek begietara eraman ditu atzamarrak. Nekea, bekarrak edo malkoak kentzeagatik izan ote den horren arrazoia jakin barik geratu da Joxan.

– Barre egingo ditek, ez dela zentzuzkoa, baina berdin zaidak, horixe delako bihotzak eskatzen didana, hantxe errautsak botatzea.

– Zuk esaiezu, hil ostean Artxandan Bilbon baino osasuntsuago egongo zarela, libratu egingo zarela botxoko kutsaduratik –eskua oratu dio, hozten ari ei zitzaion odola berotu nahian bezala.

Eta eskua oratu dionean, arrapaladan etorri zaio Santa Mariñako arrantzale zahar batek, Anton Caamaño izeneko ilegorri batek itsasoan itotakoen inguruan esandakoa: «Bai, badakit behin hilez gero berdin diola zer gertatzen zaion zure gorputzari. Arrainek, edo olagarroek, edo karramarroek janda geratuko dela; eta hori gertatu ez arren, ez dela berpiztuko itsasoak lehorrera ekarrita ere, ez dela bihotza taupadaka berriro hasiko. Behin hilez gero, hor itsaso sakonean itota, deabruak berak eragindako olatu zakarren azpian zure patuak berea egin du, kito.

Baina, begira, hemen beti eskertu dugu itsasoak gorpuak lehorreratzea, behintzat kanposantuan lur zati bat emateko. Ergelkeria irudituko zaizu, sineskeria merkea, nahi baduzu, baina horrela pentsatu eta sentitzen dugu hemen. Gizona, urte gehienak itsasoan emanda ere, lurtarra da, azkonarrak eta basurdeak bezalakoa. Lehorrean jaiotzen da mundura, eta lehorrean etzaten da azken arnasa eman ondoren».

Anton Caamaño txangurroak eta abakandoak harrapatzeko otarrak metatzen ari zen txalupa barruko bazter batean. Horretara zuen arreta une hartan. Eta otar haietatik begiak kendu barik, Manuel Leiras Pulpeirorena kontatu zion. «Manuel Leiras Mondoñedo aldean ibili zen sendagile. Herriz herri ibiltzen zen, batez ere nekazari umilen etxeetan. Begirunez egiten zuen bere lana, batzuetan kobratu barik, edo bertakoek eman zezaketen diru apurra jasoz... edo askotan gaztaren bat, urdaia, sagarrak eta halakoak. Argi zeukan jende umilak ezin zuela gehiago eman, eta tratu hari zein sendatzen lortu zuen ospeari esker, santu baten gisa hartzen zuten euren etxeetan. Batzuetan haren zapia, aterkia

edo beste zer edo zer kendu egiten zioten gaixorik zegoenaren ondoan ipintzeko, hark gaixoari mirariren bat eragingo ziolakoan. Eta gaixoa sendatu ostean Leirasi kendutakoa itzultzen zioten gurinaz, gaztaz, txerrikiaz eta halakoez betetako otar batean, esker onez. Bai, santu ezagunak baino santuagotzat zeukaten Manuel Leiras. Beti prest etxe batera zein bestera joateko. Beti prest gaixoaren etxekoek dirurik ez bazeukaten ere. Eta beti prest izate hark bere saria eduki zuen: jende umilaren estimu handia. Mende hasieran hil zen Leiras, eta sakramentuei uko egin zienez, ba, Mondoñedoko hilerri zibilean lurperatu zuten, o camposanto dos extraños, hemen esaten dugun moduan. Hurrengo eguneko gauean inguru hartako jendea, hainbat bidetatik etorria, hilerri zibilera sartu eta euren herrietako kanposantuetako lur bedeinkatua bota zuten Leirasen hilobi gainean. Ez zuten nahi izan Leiras extraño baten moduan lurperatua izatea».

– Itsasoan itotakoak zuen ondoan lurperatuak izatea nahi duzuen bezala –esan zion Joxanek Anton Caamañori.

– Hildakoak maite dutenen eta maite dituenen ondoan egon behar du.

Azken berba hauek gogoratzean Tomasi begiratu dio azken aldiz.

– Hurrengora arte, Tomas.

– Hurrengo bat izan dadila, Joxan.

Zigarroa bota eta erlojuari begiratu arin bat eman dio. Oraindik ordu erdi bat dauka Andres Fanorekin elkartu aurretik, handik gertu, berrehun bat metrora dagoen Abaroa tabernan. Gero eta urduriago igartzen du burua, Andres Fano zaharrak Txerraren heriotzaren gainean zer kontatuko ote dion. Ez heriotzari buruz, ez, lehergailua zartatu egin zela ondo daki Joxanek. Baina zartatze haren inguruan Fanok kontatzeko zerbait daukala ere ondo daki. Neurri handi batean, Txerraren kontu latzarekin amaitu nahi du behin betiko. Amaitu, bai, baina dena ondo argituta, edo ahalik eta argien behintzat. Arantza horrek denbora luzeegi darama bere bihotzean iltzatuta. Bada garaia iraganaren bihotzetik ateratzeko.

Teilatuen artean ardo koloreko zerua dago, urdin ilun hori. Gaua erabat abaildu aurretiko

argia. Kaleko farolak piztu dituzte, oraindik beharrezkoak ez badira ere. Eta San Francisco kale aldapatsutik datozen kotxeak pasatzen utzi ostean, kaleaz bestaldeko tabernan sartu da Joxan.

Beroa, zigorra baino, laztana da orain.

–16–

Honela eman dugu azken ordu betea, Txirenetarrok, Ezkerraldetik etorri zaigun fanzine berri honi buruz... narrazioak, poemak, entrebista pare bat eta bestelako gehigarri batzuk aletzen. Eskertzekoa da fanzine berri bat izatea gure artean, Sestaotik Santurtzira bitarteko kontuak ekarriz lagun hauek kaleratutako honen modukoa: freskoa, mamitsua, umore onekoa eta ironia handikoa. Espero dugu bizitza luzea eduki dezan.

Eta fanzine berriaren nondik norakoak zabaldu ondoren beste gai bati helduko diogu... baina lehenago... Fun Da Mental taldearen kanta, *A Lesson In Love, Listen!* Gerra, gerra nonahi, gerra! Halaxe datozkigu kanta honen erritmoak...

War! War!
Too much war!
Angola, Mozambique, South Africa!
War! Everywhere!

War! War!

Gerra larregi, gerra nonahi! Ez dago kanta honen indarra azaldu beharrik, lagunok; bateriak erritmo guztia markatzen du bonbardaketa baten leherketen antzera... bateria sendoa, eta ahots are sendoagoa doinu arabiar ukitu horien artetik... gerrek dakartzaten minak errepikatzen... halako klimax odoltsu baten bila abiatuko balitz bezala...

War! Everywhere!
War! War!

Telefonoaren argi gorria piztu zaigu berriro. Eman diezaiogun bidea...

– Nor daukagu bestaldean?

– Maribi... Astrabudutik deitzen dizuet.

– Eta zer daukazu Astrabudutik kontatzeko?

– Astrabuduko gasolindegian nago, Astrabuduko behealdekoan, badakizue, itsasadar parean dagoena, Erandio eta Udondo artean, eta... bueno, kontua da gasolina behar nuela, eta hemen gelditu naiz, eta orduan konturatu naiz

hemendik hogei bat metrora DYAko furgona bat zegoela errepideaz bestaldean, uretara doazen eskailera zaharren ondoan, Ertzaintzaren beste furgona pare batekin... Eta uretatik gorpu bat ateratzen ikusi ditut.

– Hilik zegoela esan nahi duzu?

– Hurbildu egin naiz, baina bertara joandako poliziek, inguratu diren beste batzuei bezala, atzera egiteko agindu badidate ere, DYAkoek esan digute etorkinaren gorpua dela, emakume haurdun baten gorpua, gaur irratiok zabaldu duzuen Santurtziko kasukoa...

– Merkatalontzi horretatik uretara egin duen emakume horren gorpua?

– Bai, bai, halaxe esan digute DYAkoek. Denok ikusi dugu larru beltzeko emakume baten gorpua zela, emakume haurdun batena. DYAkoek argi eta garbi utzi dute uretara botatako emakumea dela, dauzkaten datuen arabera...

– Agertu da, beraz, zoritxarrez espero zena...

– DYAkoek komentatu dute orain ordu erdiedo eman dietela horren berri, alegia, baten batek deitu diela esanez pertsona baten gorpua zegoela ur azalean, errepidetik gertu, antza, ma-

reagorak honaino ekarria. Abisuaren ondorioz Ertzaintzaren zodiak pare bat agertu da, furgona hauekin batera, eta uretan dauden burdinazko buia handi horietako baten ondotik atera dute Axpeko erriberako molla zaharrera.

– Latza izango zen ikusitakoa...

– Bai, ezin duzue imajinatu, halako emakume bat, haurdun, eta hilda... izugarria... Negargura daukat, benetan, negargura itzela... Begira patuak noraino ekarri duen emakume hori.

– Maribi, eskertzen dizugu deia. Tamalez espero zitekeen okerrena gertatu da. Kontrako albistea eman nahi genuen... nonbaiten bizirik agertuko zela...

– Aizu... entzuten didazu?... Badoaz... orain badoaz...

– Zarata artean entzuten dizugu...

– Badoazela!, gorpua DYAkoan sartu eta alde egiten ari dira...

– Eskerrik asko, Maribi, mila esker. Nahiko nuke beste batean zuk berriro deitzea. Ea hurrengoan berri pozgarri bat kontatzeko aukerarik baden...

– Hala nahiko nuke, jakina. Deituko dizuet, bai.

– Hurrengora arte.

Maribiren deiaren ostean, entzuleok, ez dakit zer esan, zer edo zer esateak zentzurik ote duen, ez bada zirrikitu guztietatik halako laguntza eta elkartasuna eskaini behar dizkiegula egoera larri horietatik ihes egiten dutenei... Europa bihozgabe honen harresiak zulatu beharko genituzke zelan edo halan, munduko beste harresi guztiak bezala. Eta gaur bertan, eta bihar bertan ere, gure oroimenetik sekula ezabatu barik, emakume honen hilketa salatu behar dugu, argi eta garbi, istripu bat izan dela ukatuz. Ez dut panfletorik egin nahi, ezta behar ere.

Armagideon Time / Kick It Over, The Clash-en reggae dub indartsu hura ekarriko dugu Txireneko uhinetara. Salaketa kanta bat, euren izaera politiko eta musikala ederto islatzen zuena... halako egoera latzen aurrean jarri beharrekoa. Entzun ezazue! Joe Strummer-en ahotsa eta Mikey Dread-en dub efektuak... *Remember to kick it over!* Injustiziari aurre egin behar diozula gogoratu!

Stay around, don’t play around
This old town and all
Seems like I got to travel on

A lot of people won’t get no supper tonight
A lot of people won’t get no justice tonight
The battle is gettin hotter
In this iration, armagideon time

A lot of people runnin and a hiding tonight
A lot of people won’t get no justice tonight
Remember to kick it over
No one will guide you - armagideon time

–17–

Tabernako atean bertan entzuten du barruko musika. Bolumena ondo igota daukate, zalantza barik. Eta musikarekin batera kea. Nahasketa horren gainetik aurrera egin du Joxanek, taberna barrura, maila batzuk jaitsi ostean.

– Zerbeza bat –eskatu dio barrako neskari.

Eta honek, zerbeza atera bitartean, dantzan jarri ditu bere dreadlock tindatuak, entzuten den musikaren erritmoan. Neska punk rasta barrako mutur batetik bestera. Eta neska horren tankerakoak tabernan dauden gehienak. Joxanek ez dauka exekutibo gorrotagarri baten antzik, baina, hala ere, ubarroien bilera batean hontzuri baten moduan sentitu da. Ez dio ardura. Are gehiago, neurri batean gustura sentitu da gazte giro nahasi horretan. Musika eta kea tabernaren jabe. Beste garai baten oroitzapenak ekarri ditu akordura, inguru horretan ibiltzen zenekoak. Baina janzkerak eta betondoetako zimurrek bestelakoa esan diote, jadanik ederto dakiena, ez dela, zentzu batean behintzat, hemengoa.

Zerbeza hartuta, jende artetik, barrurago jo du, leiho bat ikusi uste duen aldera.

Hantxe isiotu du beste zigarro bat, leihoaren barruko koskan zerbeza utzita. Kristalaren bestaldean itsasadarra ageri da, egun amaitu berriaren argiaz. Foku indartsuek argiztatzen dute San Anton zubi zaharra, ur ilunetan efektu bereziak sortzen. Antzeko argiak ikus daitezke itsasadarraren alde bietan. Zubitik zein azoka inguruetatik jendearen joan-etorriak nahastu egiten dira farolen azpitan. Bestelako hiri bat igartzen da orduotan. Zurrunbilo horri begira geratu da Joxan momentu batez, tabernako musika ozena soinubanda bihurtuta. Horrelakoxea zen hiria garai batean Joxanentzat, iluna eta musika ozenez jantzia. Kaleko girotik ur ilunetara bideratu du begirada. Ur horiei begira istorio ederrak kontatzen zizkion Tomasek, gabarren gaineko boxeo borrokei buruzkoak. Eta jendea boxeolariei xaxaka, oihuka, txakur amorratu eta odolgosetuen arteko borroketan bezala, aurkaria akabatzeko eske. Apustuak tartean, zelan ez. Batzuk irabazle... eta gehienak galtzaile. Handik Gurutze Gorriko lantxetan lehorreratuko zituzten. Batzuk harro...

gehienak buru makur. Tomasen istorioetatik edan zuen boxeorako grina Joxanek, La Casilla kiroldegian zein bestelako aretoetan jarritako ringetara hurbildu arte.

– Ezetz asmatu zer tatuaje egin ninan Dublinen...

– Dragoi batena? Halako bat egin nahi huela esan hidan hara joan aurretik.

– Ez dun dragoia. Nire txandaren zain nengoela, hormetan zeuden argazkietan topatu ninan asko gustatu zitzaidan bat. Begiraidan hona...

Joxanek zeharka begiratu die ondoko neska biei. 24 urte ingurukoak dira. Laranja koloreko ilea daukanak niki estua gorantz jaso eta prakak lotzen dituen botoia eta gerrikoa askatu ditu. Erasoan dagoen suge baten tatuajea ageri da kulero berde argien elastikoaren gainetik. Suge koloretsua, begietan zein letaginetan halako distira berezia daukana.

– Ostia, Ainhoa, polita dun, benetan polita.

– Hemen baino askoz merkeago egin zidatenan, ia erdia merkeago.

– Ikaratu egingo ditun amoranteak –eta haginka egiteko keinua egin du.

– Bai, esango zionat hau probatu nahi duenari, ez bahaiz ondo aritzen honek hire odolostetxuari haginka egin eta jan egingo dik.

Biak batu dira barre zoro eta algaratsu berean.

– Baina badinat gehiago...

– Ez dun egia izango!

– Laranjaz tindatu nitinan aluaren ileak...

– Laranjaz?

– Bai, ipar itsasoetako jainkosa ematen dinat ilunpean –eta esatearekin batera mihiaz laztandu ditu ezpainak, barre are zoroago batek antzezpen horretatik atera duen arte–. Ikusi nahi?

– Hemen...?

Tatuajedunak eskutik oratu eta komunera sartu dira biak. Kisketaren hotsa entzun eta handik gutxira barre zoro gehiago aditu dira barrenetik.

Joxanek, zerbeza trago bitan edanez, Gaztaroko zorakeriak!, esan du bere artean, gaztetan egin behar dira horiek guztiak! Eta sugea eta aluaren ile tindatuaren kontuak buruan bueltaka dauzkala, Bibiren ahotsa etorri zaio gogora.

– Gure herri inguruko oihanetan bada hipnotizatu egiten duen suge mota bat. Txoriak, saguak eta horrelakoak begiradaz zorabiatu eta menpean hartzen ditu... Horrelako baten boterea nahi dut zu betiko nirea izateko...

– Menpean hartu ostean jan egingo ditu, ezta? –esan zion Joxanek, burua Bibiren sabelean jarrita zeukala–. Jaten banauzu, nire hezurrak baino ez dituzu edukiko.

Eguerdia zen, eguzki apal batek laino artetik argitzen zuen logela. Hantxe zeuden biak, gosaldu osteko patxadaz, izaren gainean.

– Menpean hartu, bai, baina ez hezurretan uzteko –eta Bibiren atzamarrak olgetan hasi ziren Joxanen buruan, ileen artetik–, zu behin eta berriro plazerrean jateko, gozatzeko...

– Horretarako bada, ni prest. Aspaldian nago zure begiradak zoratuta!

Joxanek sabeletik beherantz gidatu zituen ezpainak, Bibiren kirru ilunetaraino. Luze usaindu zuen hantxe, begiak bilduta. Bibik izterrak zabaldu zituen, Joxanen ahoari sartzeko baimena emango balio bezala. Eta mihiak astiro bilatu zituen sabelpeko ezpain ezkutuak, bustiak. Suge

itsu baten moduan laztandu zituen, goitik behera eta behetik gora, gero eta sakonago, plazer iturri hartan haragizko botoitxoa topatu arte. Bibiren intziria entzun zuen. Gehiago zabaldu zituen izterrak, plazerrak eraginda kontrako mugimendua egiten saiatu bazen ere. Joxanen mihiak laztandu eta edan egiten zituen zuku gozo eta gaziak. Plazerrak bularra jasoarazi zion Bibiri, eta eskuak izaretan korapilatu, eta, suge ihesko-rren moduan, gerria bihurritu. Joxan, eskuak Bibiren ipurmasailei eutsita, ez zen gelditu. Basamortuko oasi batean balego bezala miazkatu eta edan zuen sabelpeko kirru arteko iturritik. Bibiren intziriak orro bihurtu ziren. Kontrola erabat galduta dardaratan lehertu arte.

Apurka-apurka berreskuratu zuen arnasaren erritmoa. Joxanen ahoak Bibirena bilatu zuen orduan, eta euren azken aldia balitz bezala musukatu zuen.

– Sikatu egingo nauzu –esan zion Bibik irribarre batez, eta haren saman gordeta begiak bildu zituen.

Komuneko ateak egindako danbadak errealitatera ekarri du Joxan. Lehengo neska biek alde

egin dute jende artetik, eta gauza bera egin du Joxanek.

«Sokhna, halaxe zeukan izena emakume senegaldar itoak –entzun du bafle batetik barra ondoan pasatzean–, eta halaxe dauka izena, gaurkoan eta hemen, injustiziak... Sokhna eta bere ume jaio gabea hil dituen bidegabekeriak. Sokhna!, gogora ezazue izena, entzuleok, Sokhna!».

Joxanek winston pakete bat atera du makinatik. Irratiak aipatutako emakume itoaren larruazala beltza izango zen, pentsatu du, Bibirena bezain beltza, beharbada, baina hark, oraingoz Bibik ez bezala, are beltzagoa izan du patua.

Beltza da gauaren kolorea tabernatik ateratzean, erabat beltza. Zigarro bat isiotu bitartean Asun ikusi du kalean gora.

Deitu egin dio.

– Berriro lanetik ala?

– Ez, amarenean enkargu bat egin behar nuen, eta ahaztuta neukan... Baina banoa, lagun batekin geratuta nago eta honek atzera ekarri nau berriro, besterik ez. Eta zu? Oraindik hemendik?

– Nik ere badut egiteko bat, hamar minutu barru.

Elkarri begira eta isilik geratu dira une batez. Bost bat segundo iraun duen bien arteko isiltasuna lar luzea iruditu zaio. Joxanek nahikoa denbora izan du Asunek, ezagutu zuen neska gazte hura ez bada ere, oraindik ederra segitzen duela baieztatzeko. Makillaje apurrak ezin dizkio zimurrak ezkutatu, ezta orrazkerak handik eta hemendik sakabanatutako ile urdinak ere. Begiradan ere halako egonezina igarri dio, nahi gabeko topo egitetik ihes egin nahiko balu bezala.

– Badirudi ez duzula ni ikustea oso gustukoa, nire ihes hura barkatu barik bazenu bezala... Nahi? –zigarro bat eskaini dio Joxanek.

– Ez, Joxan –diotso irribarre urduriaz, espero gabeko komentarioaren aurrean–, oso oker zabiltza, hura iragana da, guztiz ahaztua...

Asunek poltsatik ducados bat atera eta di-da batean isiotu du.

– Ez nuke nahi...

– Zer uste duzu? Zurekin zoratuta zebilen neska hura naizela? –Asunen berbei, kearekin batera, halako ironia ukitua darie.

– Ez, ez da hori, baina...

– Baina, zer? Txarto pasatu nuela gogoratzen dut. Oso txarto. Eta zu orain berriro ikusteak, ba, bai, halako flash antzeko bat egin dit, ez dut ukatuko... baina kontua oso gaindituta dago... Egia esan, aspaldi gainditu nuen, oso aspaldian...

– Hark bazeukan azalpena...

Zigarroa, errimel orbantxoak bokillan, dantzan dabil Asunen atzamar artean.

– Ez dut azalpenik behar, Joxan, gaztaroko kontu urrunak baino ez dira, ez duzu uste?

– Bai –erantzun dio Joxanek, baina, aldi berean, zerbaitek diotso Asunentzako arantza izango dela betiko, garrantzia kendu nahi dion arren. Ez du kontua gehiago behartu nahi–. Umea eta gizona ondo?

– Bai, bai, biak oso ondo –diotso kalean behera datorren autobusari begira–. Umea dagoeneko ez da hain umea, nahiko koskortuta dago.

– Horixe pentsatu dut... Presaka zabiltza?

Bat-bateko elkarrizketan ezeroso igarri du Asun, berehala hanka egin nahi balu bezala.

– Egia esan, bai. Lagun batekin geratuta nago, eta amarekin gauza pare bat argitzera

etorri behar izan dudanez berandu nabil eta... banoa...

– Ondo segi, Asun.

– Berdin, Joxan.

Kalean gora joan da Asun, atzera begiratu barik. Bien arteko elkarrizketa gatzbakoa izan dela iruditu zaio Joxani, ezer berririk ekartzen ez duten horietakoa. Damutu egin zaio Asuni deitu izana, behinolako konplizitate hura lortu nahi izana. Porrota. Baina bestelakorik espero zitekeen? Bihotz kontuak, elurra eguzkitan bezala, urtu egiten ditu denborak, gupida barik. Gorrotoa, aldiz, harriaren kastakoa izango da. Gogoeta merkeak... esan du Joxanek bere artean.

Erlojuari begiratu dio. Andres Fano zain edukiko du ehun metrora dagoen Abaroa tabernan. Kalean behera dabiltza kotxe gutxi batzuk, hiriko bizitza gelditzen ez den seinale.

– Urkatuta aurkitu dute ziegan! –entzun du Joxanek bere atzean, mutil batek ondokoari esana–. Txirene irratian entzun dut, orain bost minutu, azken errekuentoa egitean topatu dutela urkatuta, kagoendios! Beste bat putakume horien zerrenda beltzerako!

– Goazen Herrikora, informazio gehiago izango dute –dio besteak.

– Manifa antolatuta dago!

Kotxeek bezala, beherantz jo dute mutil biek, San Anton zubi aldera.

Joxanek gorantz abiatu ditu pausoak, mutilei entzundakoak Txerraren heriotzarekin batera buruan bueltaka.

–18–

Fat Boy Slim-en *Gangster Tripping* kanta entzuten ari ginela ohartxo bat pasatu didate hemengo lagunek emakume itoaren inguruan. Harekin etorritakoek epaitegikoei emandako emakumearen izena: Sokhna...

Sokhna, halaxe zeukan izena emakume senegaldar itoak. Halaxe dauka izena gaurkoan eta gurean injustiziak, harekin batera zekarren ume jaio gabea ahaztu barik. Sokhna, gogora ezazue izena, entzuleok, Sokhna. Biharko egunkarietan lazgarri iritziko diote gaur gertatu denari... eta hainbat dolu adierazpen zabalduko dira bazter guztietan... baina bihar bertan antzeko egoera batean egoterik ez du inork saihestuko. Malko merkeak Europa honenak. Telebistan emango dituzten irudiei begirada lausoak zuzenduko dizkiegu, eta, hala ere, hurrengo berria emateare-kin batera Sokhna itoaren irudi ikaragarria ilundu egingo zaigu bihotzean, gura barik zabaldu den argazki-makina bateko pelikula karretea bezala... Sokhna itoaren irudi ikaragarrien ostean

eguraldiaren berri emango digute, eta kirolena, hemengo futbol taldeen gorabeherak, gure plazaren baten erdian halako eskultura erraldoi bat jarri dutela, halako sariak banatu direla, edota auskalo nongo basoetan lau kiloko onddo bat topatu dutela gure gastronomia sakratuaren gozamenerako...

Madness, madness
Madness tight on the heads of the rebels
The bitterness erup's like a heart blas'
Broke glass, ritual of blood an' a-burnin'
Served by a cruelin' fighting
5 nights of horror and of bleeding
broke glass, cold blades as sharp as the eyes of hate
and the stabbin', it's war amongs' the rebels
madness, madness, war.

Night number one was in Brixton
Sofrano B sound system
'im was a-beatin' up the riddim with a fire
'im comin' down his reggae reggae wire
it was a sound checkin' down your spinal colum
a bad music tearin' up your flesh
an' the rebels dem start a fighting
de youth dem just tun wild,
it's was among' the rebels

madness, madness, war.

Tira, guk ere, borrokalari epelok, oso ondo zer egin jakin barik, kanta zahar bat zabaldu dugu uhinetara Sokhna-rekin gertatutakoak sortu digun amorrua kaleratzeko... Linton Kwesi Johnson dub poeta eta abeslariaren *Five Nigths of Bleeding* doinu zoragarri eta sendoa entzuten ari zarete... abesten ari den jakin barik, errezitatzen ari den jakin barik, edo, hobe esanda, gauza biak egiten ari dela jakinda bere indar guztia helarazteko gauza da Linton Kwesi Johnson... LKJ.

Bost gau Brixton-en, sua eta odola, sufrimendua eta borroka Linton-en poema lerroetan. Bost gau ikaragarri Linton-en berba sendoez aletuta.

Night number three, over the river
Right outside the Rainbow
Inside James Brown was screamin' soul
Outside the rebels were freezin' cold
Babylonian tyrants descended
Bounced on the brothers who were bold
So with a flick of the wris', a jab and a stab
The song of hate was sounded
The pile of oppression was vomited
And two policemen wounded

Righteous, righteous war.

Badira egunak beste batzuk baino txarragoak, Txirenetarrok, egun motelak eta egun biziak, egun hotzak eta gaurkoa bezain sargoritsuak... ez dago zalantzarik, baina gaurkoa, kaleko giroa ez bezala, nahiko goibel agertu da goizean, Santurtziko portuan gertatutakoagatik, eta are goibelago jarri zaigu orain gaueko ordu honetan. Beste heriotza baten berri eman behar dizuegu!

Night number five at the telegraph
Vengeance walk thru de doors
So slow, so smooth
So tight and ripe and –smash!
Broke glass, a bottle finds a head
And the shell of the fire heard –crack!
The victim feels fear
Finds hands, holds knife, finds throat
Oh, the stabbins and the bleedin' and the blood,
It's war amongs' the rebels
Madness, madness, war

Bai, entzun duzuena, beste heriotza baten berri eman behar dizuegu zoritxarrez! Gaur Jon Bengoa preso politikoa urkatuta aurkitu dute zie-

gan errekuentoa egitean. Telefonoaren bestaldean daukagu Aitor...

– Hor zaude?

– Bai... hemen nago.

– Orain minutu bat deitu duzu Jon Bengoarena kontatzeko. Zer dakizu?

– Bueno, dagoeneko zuk azaldu duzu, Jon Bengoa urkatu egin omen dela ziegan. Halaxe topatu dute errekuentoa egitean, eta ondoko ziegakoek berehala deitu dute hona, Euskal Herrira, ahal izan duten bezain laster.

– Hemengoa zen Bengoa, ezta? Bilbokoa esan gura dut...

– Bai, bai, Bilbokoa... Orain dela urtebete inguru berriro espetxeratu zuten Jon Bengoa... Kartzelan hamabi urte egin ostean kaleratu zuten, urtebete-edo kanpoan eman eta, fiskalak hala eskatuta, epaileak berriro espetxeratu zuen, kondenaren murrizketa eman zion aginduan akatsak zeudela argudiatuz. Epaileak fiskalari arrazoia eman eta orain urtebete espetxeratu zuten berriro.

– Kolpe gogorra...

– Jakina! Abokatuak argi utzi zuen berriro espetxeratzeko aginduak ez zeukala lege aldetik nondik heldu, baina badakizu zelakoa den justizia euskal preso politikoentzat... iruzur etengabea.

– Urkatuta aurkitu dute. Ez da lehenengo kasua.

– Eta zoritxarrez, uste dugu ez dela azkena izango. Bigarren espetxeratze honek psikologikoki kalte oso handia egin zion Jon Bengoari, itzela, halaxe komentatu ziguten bere familiakoek, depresio gero eta sakonago batean murgildua zela... Familiak espetxe zuzendaritzakoei psikologo baten laguntza eskatu bazien ere, hauek uko egin zieten laguntza eskaera guztiei... Begira zertan geratu den kontua.

– Pentsatzen dut familiak konfiantzako psikologo bati informeren bat eskatuko ziola, espetxeko zuzendaritzari helarazteko...

– Bai, eta informe horretan argi azaltzen zen Jon Bengoa halako laguntza baten beharrean zegoela, kontua ez zela txantxetakoa... Baina hori da euren politika, presoa ahalik eta gogorren estutzea, eta hark ez badu irteerarik ikusten, eta

bere buruaz beste egiten badu, ba, azken finean Estatua pozik...

– Eta gainera esango digute, presoak berak erabaki duela bere buruaz beste egitea!

– Horixe, bai.

– Gure entzuleek jakin beharko luketen beste zeozer aipatu gura duzu, Aitor?

– Momentuz hauxe da daukagun informazioa. Pentsatzen dut hemendik gutxira hona ekarriko dutela... eta, horretaz gain, kalean salatuko dugula Jon Bengoaren hilketa... Hilketa izan delako gertatu dena.

– Kalean salatuko da...

– Kaleetan kartelak ipinita daude. Gaur gauerako egin dugu manifarako deia. Hamar t'erdietan Santiago plazan bildu eta zazpi kaleetan barrena egingo dugu hilketa berri honen kontrako mobilizazioa.

– Ederto, Aitor. Eskerrik asko informazioarengatik... Ederragoa izango zen Jon Bengoa kaleratua izan den albistea ematea, bizirik eta lagunen artean egongo zela esatea, baina bestelako berria zabaltzea egokitu zaigu... Laster arte, Aitor.

– Agur, bai.

Sokhna, bere ume jaiogabea eta Jon Bengoa izan dira gaurko irratsaioan berri latz eta ikaragarriak. Ez da samurra izango gau honetakoa, hemendik ordu batzuetara, halakoekin amaitzea, ez. Bestelako kontu atseginagoak emango genituzke gusturago, zelan ez, baina errealitateak honelakoak ekartzen dizkigu behin eta berriro.

CD irakurgailuan ragga kanta bat daukagu, Shaggy-ren ragga indartsu bat. Aitorren deia jaso aurretik aukeratua. Ez dugu aldatuko. Ez diegu gure eguneroko bizitza aldatzen utziko. Iparra galdu barik, ukabilaren kolpea nora zuzendu behar dugun ahaztu barik, ragga kanta hau entzungo dugu... hamar t'erdietan Santiago plazan ahalik eta jende gehien bildu behar dela aldarrikatuz...

Beroa izango da gaurko gaua, sargoriak irakiten jarri duen eguna baino beroagoa. Beroa, bai, Txirenetarrok, kanta hau bezain beroa. Raggaragga dator gaua...

Mr. Boombastic
What you want is some boombastic romantic
fantastic lover

Shaggy

Mr. Lover lover, Mr. Lover lover, girl, Mr. Lover lover

She call me Mr. Boombastic say me fantastic,
touch me in me back

She say I'm Mr. Ro...mantic

She call me Mr. Boombastic say me fantastic,
touch me in me back she say

–19–

– Zer nahi duzu?

– Ardoa... ardo on bat, ez bazaizu inporta...

– Nahi duzuna. Nik beste zerbeza bat eskatuko dut... Aizu, rioja on bat eta beste kaña bat, mesedez.

– Zenbat urte egin dituzu, Juanlu? Horrela deitzen dizute herriko lagunek ere?

– Bai, etxean izan ezik, beste guztiek Juanlu... Izen arrunta...

– Arrunta da nirea ere. Asun, nire lana bezain arrunta eta hutsala...

– Izena baino, izana, ezta? Hori esan ohi dute.

– Tira, oraindik ez didazu zenbat bete dituzun esan.

– Hogeita hamasei... Zelan ardoa?

– Ona, bai. Fresko atera dute, bere puntuan... Imajinatzen dut halako egun batean faltan edukiko dituzula koadrilakoak, neska laguna... ezta?

– Koadrilakoak bai, jakina. Asteburuan izango dut parrandarako aukera, badakizu...

– Eta neska lagunarekin?

– Neska lagunik ez... Azken lau urteotan, lana dela-eta, leku batetik bestera ibili naiz, ijito baten antzera, beraz horretarako aukerarik ez... Momentuz zaila daukat nonbaiten gelditzea.

– Ile kizkur beltzarana eta begi berdeak dituzu... Horiekin eta zure irribarrearekin erraz lortuko... Ez egin barre!

– Zelan ez dut egingo...

– Barre egiten didazu?

– Ez, inondik inora ere ez, baina...

– Baina bitxia egiten zaizu hemen nirekin egotea...

– Bueno, neurri batean bai, eta bestean ez.

– Batzuetan ez da jakiten bizitzak nondik eta zelan joko duen... Horregatik da zirraragarria, ez duzu uste?

– Bai, zalantzarik gabe... Zuk ere amaitu duzu gaurko lana?

– Tabernakoa bai... eta etxekoa, ba, egin egingo didate. Noizean behin halakoak suertatzen dira... Mmmm, aparta da ardo hau!

– Izerditan zaude...

– Eta nor ez! Itzela izan da gaurko sargoria! Pentsa egizu zelan ibili naizen tabernako sukal-

dean, berdurekin batera ni neu ere egosteko puntuan nengoen... tantaka jausten zitzaidan izerdia samatik behera, orain bezala... Begira ukitu hemen...

– Asun...

– Zer?

– Ez nuke nahi zuk arazorik...

– Arazoak kanpoan utzi ditut, hemendik urrun... Hurrengoa nik ordainduko dut, ados?

– Bai.

– Aizu, beste ronda bat, mesedez.

– Nahi duzu jesarri? Jarriko gara horko...

– Ez, ez... Nekatuta nago, baina barra ondoan egotea gustatzen zait, horrela zutik... Zenbat da? Kobra egizu hemendik!

– Gaur sugandila baten larrua baino lakarrago daukat ahoa... zoragarri sartzen da zerbeza hau!

– Ekarri egizu basoa, hogeita hamasei urte horiengatik topa egingo dugu.

– Topa egingo dugu, jakina.

– Berrogeita hiru...

– Zer?

– Berrogeita hiru, Juanlu, zuk baino zazpi urte gehiago ditut...

– Ez dizut adina galdetu...

– Esan egin nahi nizun, besterik gabe... Zelan ikusten nauzu? Ez naizena antzezten ari naizela?

– Ondo, ez duzu ematen...

– Berba faltsurik ez bota...

– Ez, benetan, erakargarria zara.

– Zerbeza hori hartu eta, nahi baduzu, alde egin dezakezu...

– Ez dut nahi... eta berriro diotsut, erakargarria zara, sinetsidazu...

– Alde egin dezakezu...

– Ez daukat motiborik... kontrakoa, gustura nago, benetan.

– Begi berde horiek zelan begiratzen duten gustatzen zait... eta zure irribarrea...

– ...

– Irribarrea zelan marrazten duten ezpain horiek...

– ...

– Musukatu egingo nituzke...

– Zuretzat dira.

–20–

Kalean gora, Abaroa tabernara bidean, kolore guztietako larruazalak gurutzatu dira Joxanekin. Beltzak eta magrebiarrak taldeka dabiltza izkinetan, eta ijitoak eta putak hara eta hona. Deigarriak egin zaizkio beltzen hagin zuriak... eta urrezko eraztunak, eta biserak, eta musika aparailuak lokalen barrutik kalera aterata. Ezezaguna egin zaio giroa Bilbo berri honetan. Afrikar eraz gertatutako janarien usain sarkorra. Hango emakumeen soineko koloretsuak, eta orrazkerak. Ertzaintzaren furgona bi izkina batean aparkatuta, espaloi gainean. Ertzainak kanpoan, txapel barik, kalean gora eta behera doazen guztiei arretaz begira. Giro horretan heldu da Abaroa tabernara.

Tabernan dozena t’erdi bezero. Denak gizonak, gehienak hirurogei urte ingurukoak. Telebistan futbol partidu baten irudiak. Barrako batzuk haiei begira, esku batean zigarroa, tragoa barra gainean. Komunaren ondotik berba ozen batzuk entzuten dira. Berbetan dagoena ezagu-

tu du Joxanek, Jesus Mentxaka, Bomba. Mozkortuta, antza, berbetan zelan dabilen ikusita, baso ardo bat zelan hustu duen inguruan dituenen barreen aurrean. Bombak ondoko mahai gainean basoa utzi eta boxeo kolpeak antzezten hasi da, baina mozkorrak oreka galarazi dio eta lurrera jausi da aurrean dituenen burla algaratsuak sortuz. Ahal bezala jarri da zutik, eta berriro lotu zaio lehengo boxeo kolpeen dantza barregarriari.

– Hauxe duzue nik erabiltzen nuen uppercut sendoa –entzun dio Joxanek oraindik ate aldetik begira–, eta beste hau orain urte asko erraz ikusten zen krotxeta. Begiraiozue, ergelok, nire swing honi, Bilbo osoan garai batean ezaguna...

Barrako beste muturrean Andres Fano ikusi du, tabernariarekin lasai berbetan, Bombak martxan daukan espektakuluari kasurik egin barik.

– Andres, aspaldikoa –diotso Joxanek haren bizkarrean eskua jarriz.

Hasieran kostatu egin zaio Joxan ezagutzea. Begira jarri zaio, isilik, lanean berarekin batera ibiltzen zen gazte hura berriro ikusi nahi balu bezala.

– Aldatuta ikusten nauzu, ezta?

– Nor ez duk aldatu? Eta zahartu!

Joxanek eskainitako bostekoari berehala heldu dio Andresek.

– Zer hartu nahi duk? –galdetu dio Andresek.

– Zerbeza bat.

Andresek zerbeza eta beste kopa bat koñak eskatu dizkio tabernariari. Telebistari begiratzeari utzi barik, zerbeza ateratzen hasi da.

– Bueno, bueno, zenbat urte, ezta, Joxan?

– Batzuk bai... Ondo ikusten zaitut.

– Dagoeneko ez gaituk lehengoak. Urteek faktura pasatzen ditek erruki barik. Hi, berriz, gizonduta ikusten haut.

– Gizonduta ala gizenduta?

Andresek barre egin du.

– Normalean gizontzeak gizentzea ekartzen dik. Eta?, zelan bestela? Arreba batzuetan ikusten diat, baina hi tailerrean henbilenetik ikusi barik... eta hori, ondo dakik, aspaldiko kontua duk.

– Tailerra utzi nuenetik nahikotxo aldatu zait bizitza, bai... Gainera orain gutxi aita hil zaigu...

– Ez nekian... Sentitzen diat, benetan. Egia esan, apenas ezagutu nian. Hiruzpalau aldiz egon ninduan berarekin, Tomasen tabernan, trago pare baten bueltan, baina oso aspaldian...

– Denoi amaituko zaigu inoiz-edo bidea...

– Zalantzarik ez, baina hik, nik ez bezala, oraindik bide luzea daukak.

Telebistari begira daudenak oihu batean hasi dira baliogabetutako gol baten kontura. Irain ere bai batzuk. Komun ondoan Bombaren kolpe imintzioak eta kontu zahar eta zoroak nagusi.

– Pentsatzen dut jakingo duzula zergatik deitu nizun atzo gaurko geratzeko –diotso Joxanek.

– Uste diat... –ducados bat isiotu du– Txerra, hire lagun haren inguruko kontuarengatik, ezta?

– Tailer atzealdeko biltegi zaharrean zartatu zitzaion lehergailuak hil egin zuen...

– Akordatzen nauk... entzun ere egin nuen danbada hura.

– Han inguruan egongo zinen?

– Bai, egun hartan motorren arduradunak, Roblesek zera esan zidaan, bizpahiru ordu gehiago sartzeko, hurrengo egunerako tren bat prest

egon behar zelako, eta nik baietz, ez zidala larregi inporta. Aparteko dirutxo bat jasoko nian haren kontura... eta, bueno, hartan ibili ninduan, nirekin batera Lopategi eta Pelucos. Halako batean, pieza berezi bat behar genian, eta tailerrean ez zegoela ikusita, ba, txatarra biltegi hartara joatea erabaki nian, haren moduko zaharren bat topatuko nuelakoan. Gaua zuan, baina badakik itsu ere joan gintezkeela lasai asko handik... Eta orduan, ilargiaren argitan, ertzain saldoa ikusi nian biltegi inguruetan, ezkutatuta, zelatan, basurderen bat harrapatu beharko balute bezala.

– Hori guztia danbada entzun aurretik?

– Bai, bai... Eta giro hura ikusita, ba... ez hurbiltzea erabaki nian, euren operazio bereziren bat izango zelakoan, ez nioan garrantzirik eman. Geroago bueltatuko ninduan, haiek joandakoan. Ez nian arazorik nahi, ze, badakik, halako baten erdian sartu eta gatxa duk zelan irten...

Andresek ahora eraman du koñaka, eta luze gozatu du koñakaren laztana, eztarriratu aurretik.

– Giro eskasa igarri nian biltegi inguruan... Ertzainak sasien artean eta biltegiko izkina pare batean, erasoan hasteko moduan, eta, halakoetan, badakik, bala batek ez dik zer edo nor daukan aurrean begiratzen. Berdin ziok hiri propio zuzendua den ala patuak eskatu barik oparitzen dian... Bueno, ba, ertzain mordo haien atzetik, erreka aldean, ertzainen nagusiak ikusi nitian, operazio hura bideratzen ari zirenak, eta haien artean Agirre, hik garai hartan hainbat aldiz madarikatutako jeltzale negoziante ezagun hura, operazioaren kontuei adi-adi...

– Eta gero?

– Tailerrera bueltatu ninduan, ez nian uste han segitzeak ezer onik ekarriko zidanik.

– Tirorik ez?

– Ez, bat ere ez, danbada sendoa... Tailer barrutik ederto entzun genian.

Barra gainera aldatu du Joxanek begirada, baina ezer ikusiko ez balu bezala. Andresen aldetik entzun behar zuena entzun du jadanik.

– Segada puta bat...

– Zelan? –galdetu dio Andresek.

– Segada puta batean hil zutela...

Gau hartan Agirre han zegoela esana zion arrebak telefonoz, Andresek kontatuta. Baina honen ahotik entzun nahi zuen hura, edozein zalantza erabat argitzeko. Agirrek haraino zuzendu zituela ertzainak, txakurrek ehiztaria eramaten duten moduan. Andresen ahotik entzun nahi zuen hura. Kontua garbi uzteko betiko.

Komun paretik ozenago entzuten da Bombaren ahots adurtia, haserre bizian bezala.

– Baina zer uste duzue, babo halakook? Zeri egiten diozue barre? Ukabil hauek oparitutako uppercutak Bilbok eduki duen ring zoragarrienean ikusiak izan dira –Bombak ukabil itxi eta gogortuak ipini dizkie aurrean burlaka ari zaizkionei–, hantxe, gabarra haietan ibilitakoa nauzue, oilo bustiok! Zuek ez duzue inoiz ezagutu halako zirrararik, halako odol berotzerik... Hantxe, kolpe eta zaurien odol arrastoak jausten ziren ur horietara, gorroekin eta izerdiarekin nahastuta, eta bertoko lazunak zaletu egin ziren odolarekin, bai, zaletu, eta zaletze hartatik odolaren beharrean hazi zirela... Orduko anguleroek esango zizueten, nik baino hobeto, lazun haiek anguleroen eskuei haginka egiteko kapazak zire-

la, uretatik salto eginda, amorratuta, zoro, odolez gosetuta... eta izugarri handitu ziren, eta odolez zikinduta zeukaten musu likitsua, ardiei eraso egindako otsoek bezala... Marrazoak ere etorri ziren odolaren usainak erakarrita, eta ur hauetara jausitako txakurrak edo katuak janak ziren minutu pare batean, pirañek egiten duten moduan... Antza, marrazo larregi urotan, eta huraxe izan ei zen gabarren gaineko borrokak kentzeko arrazoia, bestelakorik esaten badute ere... Ur hauek... laster ez dira ikusiko horrenbeste zubi sasielegante eta modernoekin, itsasadar hau hiri honen motorra izan dela ikusi ez dutenek propio jarriak... Gauza bera egin zuten Pagasarri aldetik jaisten ziren errekatxoekin, denak estali, euren presentziaz lotsatuko balira bezala. Erreka horietako bat Helgera zen... edo da, zeharo estalia egoteak erreka izaerarik kendu ote dion ez dakidalako orain. Tira, Helgeraren ur gorriak Iturrigorritik hasi, Bilbo erdi osoa zeharkatu eta Olabeagan nahasten dira itsasadarreko ilun eta zikinekin, hantxe, halako hodi zabal eta zahar batetik kanporatu ostean... Hodi haren ondoan, emakume eder batek ilea behin eta berri-

ro orrazten ematen zuen denbora guztia, antzinakoan agertzen ziren lamia haien gisan, orraztu eta orraztu... Inork ez zekien nondik etorria zen, baina hantxe egoten zen, orraztu eta orraztu, inguruko mutil batekin maitemindu zen arte... Honek txakolindegi batera eramaten zuen, Sarriko atzean zegoen batera, eta hantxe ematen zituzten arratsaldeak, eta gau parteak udan... Mutilak, urte luzez marinela izandakoak, itsaso guztietako istorioak kontatzen zizkion txakolinaren konpainiaz... erabat mozkortzen ziren arte. Zeinek ez zuen txakolin freskoaren laguntzaz amets egiten? Ekarridazue txakolina! Txakolin fresko eta gozoa! Hiri honen benetako odola den txakolina! Ekarridazue txakolina eta Bilbo ezezagunaren istorioa kontatuko dizuet... merke aterako zaizue, ipurtzuriok!!!

Txerrarena argitu ostean tailerreko beste lankideak izan dituzte hizpide. Honek aurrejubilazioa eskatu zuela, bestea hil egin zela, hura tailer berrietara bidali zutela... Hainbat pasarte gogoratuz une alaia igaro dute. Zelan aldatu diren gauzak! Eta horretan Joxanek bostekoa luzatu dio Andresi, eskertzeko eta agurtzeko keinua

aldi berean. Dena esana dago. Dena entzuna. Andresentzat beste kopa bat eta Bombarentzat botila bat txakolin ordainduta utzi ditu. Zergatik ez. Alkoholak laztandu egiten ditu minak. Zauriak miazkatzen dituen txakurraren adurra bezala.

Tabernako atea zeharkatu aurretik atzera begiratu du, Bombaren mozkor oihuen oihartzunera... Epela da gaurko gaua. Beroa Joxanen odola.

–21–

Andresek txakolin baso luzanga luzatu dio Bombari. Esku dardaratiz ahora eraman eta trago batez hustu du erdia, atzeko mahaian bermatu ostean. Atzamarrez sikatu ditu ezpainak.

– Gormutuek ere estimatzen dute txakolina –esan du Bombak–. Sarriko atzeko txakolindegi hartara joaten ziren inoiz-edo, ezkutuan, gormutuen eskolako harresian egindako zulo batetik ihesi, gizajo berbabako haietako batzuk, bai, gurutze kristauaren zigorretatik ihesi... sufrimendu hura ahantzaraziko zieten txakolin botila batzuen bila, eta, ahal zela, apur bat mozkortu... euren buruaz beste egitea baino hobea zelakoan. Baina, halako batean, bertako abadeek harrapatu eta gogotik egurtu zituzten, bekaturik aitorrezinena egin balute bezala, odola atera arte, eta barre egiten zieten lurrean zeutzan gormutu umiliatuei, jipoiaren zigorrak tximino zoroen erako garrasiak eragiten zizkietelako... Haiek putakumeak! Eurek baino gizatasun handiagoa izango zuen edozein sugek... Antzeko oihuak za-

baltzen zituen Lutxanako tabernako alaba atzeratuak, aita konturatu barik, labe garaietako langile txortarako beti prestuekin. Goizaldeko txandan laguntzen zion aitari tabernan, kafeak, solisonbrak eta pelikula pornoen giro algaratsuan. Batzuek esaten zuten pelikula porno haiek zirela neska hura beti altan egoteko arrazoia... Beste batzuek, berriz, herrena zela, hanka bat bestea baino motzagoa zeukala, eta hark etengabeko igurtziak egiten zizkiola hankartean, eta handik edozein ordutan bero egoteko arrazoia... Tira, kontua da egunero bi, hiru eta, batzuetan, lau gizon eramaten zituela geltokian zegoen bagoi abandonatu batera, eta tren zaharren usain hartan eskertu egiten zituela langile izerditu haien emankadak... Hori guztia Fede Markaidak kontatu zidan, orduko geltokiko arduradunak... Eta antzeko zeozer, baina oraingoan nik ikusia, Zabala eta San Adrian arteko etxe batean gertatua... Candida Larrondo bizi zen bertan. Haren gizona marinela zen, Gineatik enbor erraldoiak ekartzen zituen zama-ontzi batean lanean ibiltzen zen marinel peto-petoa, tatuaje pare baten jabea... Kontua da Candidaren gizonak hilabete asko

ematen zituela itsasoan, Gineatik Cadizera, eta Cadizetik Santurtzira, edo Zorrotzara... eta Candida beldur zela gizonak hango portuetan engainatuko ote zion beste batekin, edo beste batzuekin, diru apur baten truke sexua emango zioten emagalduekin... Beraz, gizona etxeratu eta hurrengo egunetan jo-ta-fuego ibiltzen ziren txortan, gelditu barik... eta hura guztia Candidak oso-oso katolikoa zelako egiten zuen. Ez zuen bere gizona deabruaren bizioetan jausterik nahi... Candidaren plazer oihuak, orroak, hobe esanda, San Adriandik honaino, itsasadarreraino entzuten ziren, elefante talde oso bat akabatzen ariko balira bezala... Eta inguruko ume guztiak izututa, beldurtuta, orro olde haren kontura, eta andre batzuek etxe hartatik honainoko eliza guztietan salatu zuten bikote haren jarduera bekataria, baita apezpikuaren etxe aurrean ere. Candidaren gizona lehorreratu eta San Anton elizatik haren etxeraino prozesioa antolatzen zuten, haien etxea ur bedeinkatuaz busti eta guzti, eta otoitzean belaunikatu, Begoñako amabirjinaren irudia etxe aurrean ipini ostean... Batzuek bestelako konponbidea bilatu nahi zioten hari, portuan

bertan gizonari puta pare bat ordaindu eta, horrela, etxera ondo asetuta helduko zelakoan, ondo hustuta, esan nahi dut, izara azpiko jokoetarako grina barik... Handik urte batzuetara, hura guztia amaitu egin zen, eta ez andre haiek saiatu ziren moduan, ez, bestelako amaiera eduki zuen hark... gizonaren zama-ontziak ur azpiko harkaitz batzuk jo eta Galiziako Punta Roncudotik milia pare batera hondoratu zen erruki barik, Jaungoikoak orduan haren zor guztiak kitatu nahi izan balitu bezala... Beste batzuek zera esan zuten, Jaungoikoak olagarro erraldoi bat bidali zuela ontzi hondoratu aldera, San Anton elizatik antolatutako prozesioei esker, eta zortzi besoko munstro hark gizona besarkatu eta Atlantiko erdiko sakonetara eraman zuela... Eta hara joan zen Candida, Punta Roncudoko labarretara, gizona agertuko zitzaion esperantzaz, han eman zituen egunak eta gauak, eta asteak... denetarik jaten, lanpernak, lapak, itsas kirikinoak eta karramarroak, eta algak eta horrelakoak... eta halako batean, burua erabat galduta, labarretan behera bota zuen burua... Marinel hura, Candidaren gizona, berriro ikusi nuen, handik ur-

tebetera, baina hilda, astelehen euritsu batean, La Najako arkupeetatik, noraezean, uretan bere aurpegia ikusten ez zuelako arduratuta... Eta zer gura dok?, esan nion, hi Pitxitxi futbolari txapeldun hura baino hilago hago, hire bila joango dozak laster batean, zergatik uste dok ez dagoela inor hire inguruan? Ondo baino hobeto dakitelako hilotz ibiltaria haizela, hire bila joango dozak, baina infernura betiko bidaltzeko... dagoeneko, La Palanca ondoan bizi den Soledad kubatar beltzaran harekin hasi dozak tratuan, halako edabe bat hiri emateko, tabernaren batean edo hor nonbait, eta, esan deuat, infernura bidaltzeko... Horixe emango juek, eta hik lasai baino lasaiago eztarriratu eta lehertu egingo haiz, puxika ustel baten moduan... Eta Candidaz zeozer ote nekien galdetu zidan. Eta nik, ba, hori, Punta Roncudotik behera bota zuela bere burua... Orduan negarrez hasi zen, isilik eta malko barik, hildakoek negar egiten duten moduan, eta itsasadarrera egin zuen salto, birritan pentsatu barik, eta hantxe, uretan zegoela, halako burbuila handi batzuk agertu ziren, eta handik apur batera halako balea marradun bat, zebra horiek

daukaten larruazalaren modukoa, eta haren gainean desagertu zen Abra aldera... Punta Roncudora zihoala esan zidan oihuka, Candidaren bila... pentsatzen dut hango kalaren batean biziko direla, txortan egun osoan, euripean zein eguzkipean, egunez zein gauez... hildakoek ez daukatelako ez muga fisikorik ezta etikorik ere... Handik bi egunetara egunkariak zera zekarren, gau hartan Zierbenako arrantzale bik, txipiroietan ari zirela, bera eta balea marraduna ikusi zituztela, olatuen artetik, mendebaldera bidean... Autoritateek ez zieten sinetsi, jakina, eta erotuta zeudelakoan Zamudioko zoroetxera bidali zituzten gizajoak... Ez dakit zergatik ez zieten sinetsi, halakoak itsasadarrean posible dira eta... Ni neu izurdeak ikusita nago hemendik gertu, azoka parean, honaino saltzera etortzen ziren arrantzaleei jausitako arrainen bila, eta baita submarino aleman bat ere, Ibarrekolanda gaineko kanposantuan euren eskifaia-kide hil berri bat lurperatzeko asmoz... Deustuko erriberan lehorreratu eta Ibarrekolandakoan lurperatu zuten gauez... eta handik aste batzuetara hildakoaren bila bueltatu ziren... Gauza jakina da atzerrian lurpera-

tzeak hildakoari tristura handia dakarkiola, ezin duzulako ondoko lurperatuekin berbarik egin, ez diezulako tutik ere ulertzen, ez dakizulako zeintzuk diren beste hildakoen intentzioak, eta hortik eta hildakoen arteko istiluetara tarte gutxi dagoela... ba, hori, etorri, lehorreratu eta berriro jaso zuten kide hila, kanposantuan bakartuta zegoena... gauza tristea da hori, bai horixe... Kontrako gauza gertatu zitzaion Bilbon hil zen irakasle ingeles bati... Zurrutero galanta zen, eta horrek bihotzekoa ekarri zion Somerako taberna batean zegoela, eta, bueno, alkoholzuloetako lagunek Mallonako kanposantuan eman zioten lurra, bai, baina honek, berriz, ederto errezitatzen zituen poemak, Dylan Thomas, Yeats, Whitman eta halakoenak, eta kanposantukideek gustura entzuten zizkioten, batez ere Dylan Thomas-enak, ezin hobeto errezitatzen ei zituelako haren azentu etilikoaz... bertan lurperatutako emakumeek ere tratu berezia ematen zioten, eta egunero sexuaren plazerra eskaini ere... han lurperatuta zeuden emakumeak asko zirelako, eta ingeles literaturzaleak Londresko gozotasunaz hartzen zituelako denak... Berdin ibiltzen zen, emakumeen

kontuaren aldetik esan nahi dut, Atxuriko Tomasito, apur bat atzeratua zena, azokako dendarien errekaduak hara eta hona eramaten, ia-ia ni nabilen moduan, baina hura suerte hobeaz, bai, dena esan behar da... Hark kristoren aldaba zeukan, itzela zen hankarteko odoloste hura, eta inguruko neskazahar eta alargun guztiek erosketak etxera ekartzeko aitzakiaz mesede hartzen zuten, mesede eta plazerra... antxoak, barbarinak, bisiguak eta halakoak sukaldean utzi ostean txitxarro ezkutua bilatzen zioten Tomasito inozenteari... praketako botoiak askatu ostean aldabari laztan pare bat eman eta han hasten zen haren erreminta handitzen, tentetzen, harrotzen... eta Tomasitoren ezpainetan irribarre inozente bat, hura eskertuko balu bezala... hantxe, sukaldeko mahai gainean, arrain freskoaren usainaz, andreak gona jaso, kuleroak erantzi eta hankartean besarkatzen zuen Tomasitoren aldaba erraldoia... gero, txokolate ontza pare bat edota bestelako gozoki batzuk eman, baita Begoñako amabirjinaren postaltxoren bat ere, eta poz-pozik alde egiten zuen... Hura ahoz aho zabaldu zen Bilbo osoan... Andre lizun haiek hiru,

lau edo bost aldiz egunean eskatzen zioten mesedea, bigarren lan hura... eta Tomasito, idisko baten parekoa bazen ere, gero eta makalago ibiltzen hasi zen, indar barik, barrutik erabat hustuta... Denok dakigu hiru, lau eta bost aldiz egunean txortan egiteak indartsuena ere itzali egiten duela, eta huraxe gertatu zitzaion Tomasitori. Halako batean andre haietako baten gainean, zamalkatzen ari zela, seko hilda geratu zen... Pentsa egizue zelako lotsa pasatuko zuen andreak idisko haren azpian ezin mugitu eta auzoei laguntza eskatzean... Aingeru baten modukoa zen Tomasito, hori guztiek esango dizuete, eta denbora librean txoriei ogi apurrak ematen zizkiela Arenaleko lorategietan, bai, Artxandatik jaisten ziren urretxindorrei, eta zozoei... hauek bakarrik Tomasitoren ondora jaisten ziren, ondo zekitelako hura zintzoa eta inozentea zela, eta, baita, orain gogoratu naiz, Basurtuko ospitaleko umeen pabiloietara ere, gaixorik edo hil hurren zeuden umeen ondora... txori horiek oso bihotz onekoak dira, oso, eta, antza, ederto zekiten, leihoen ondoko zuhaitzetatik kanta-kantari, irribarreak aterako zizkietela ume koittadu haiei,

ospitaleko egun mingarri haiek arindu egingo zizkietela euren kantuez... Hango erizain lagun batek zera esan zidan, erabat itzaltzen ari ziren umeen ondotik egunez eta gauez aritzen zirela kantuan, eta txori haiek, leihoetako koska haietan jarriak, inondik inora ez uxatzeko agindua zeukatela ospitaleko zaindariek, hark guztiak heriotza gozoagoa emango zielako esperantzagabeko ume zurbil haiei... Bai, nik ere heriotza gozo bat desiratzen dut, txakolin hau bezain gozoa, edo gozoagoa, nahi baduzue... eta horregatik sarri egiten dut amets bera, gabarra gainean nagoela, eta gabarrako sokak askatzen ditudala, orduko gaztea izanda, eta mareari uzten diot ni eta gabarra itsaso aldera eramaten, miseriarik eta odolik gabeko ur horietara, azken arnasa, azken bihotz taupada isiltasun ikaragarri horretan eman arte... begiak bildu eta joan, berriro inoiz ez itzultzeko...

–22–

Erlojuari begiratu dio berriro Joxanek. Afrikar giroko San Franciscotik buelta pare bat eman ostean, magrebiar, beltz, ijito eta puten artetik ibili ostean, nor bere txokoan, jakina, La Merced zubira abiatu da aldapan behera. Orain urte batzuk, Galiziako aurreneko urteetan, boxeo borrokak iragartzen zituzten kartel batzuetan bere izena agertzen zen, Jose Antonio Uriarte, o boi vasco, eta beherago, hizki handiz, GRAN VELADA. Berba horiek etorri zaizkio Joxani, gaur izan daitekeelako bere «gran velada», azkena, boxeoan lortutako sariak eta diruak baino plazer handiagoa emango diona... Txerraren heriotzak eragindako mina arinduko duena.

Galizian ikasi du zelatan egoten, sasipean ibiltzen, joan-etorrien ordutegiak kalkulatzen, ibilbideak zehazten... basurde ehizan balego bezala. Eta badaki gaur Agirrek afaria daukala Barrenkale barrena ondoko soziedadean, ostiral gehienetan bezala, eta berandutu barik La Mer-

ced zubitik pasatuko dela, gorago dagoen putetxe batera joateko, afari osteko koadrila giroan.

Handik hamar bat minutura zubia zeharkatu eta ondoko barandan bermatuta, zigarro bat isiotu du, itsasadarraz bestaldeko arkupeetan hara eta hona dabiltzan jonkiei begira. Lazunen arrastorik ez ur orain ilunagoetan. Bikoteren bat edo beste azaldu da gerritik helduta. Noizean behin Ertzaintzaren furgona batzuk ere agertu dira erriberako kale horretatik, astiro, sirenak eta argi urdinak amatatuta. Dena kontrolpean, antza.

Hirugarren zigarroa isiotzearekin batera berbaroa entzun du atzean. Zortzi gizoneko koadrila bat. Kalea zeharkatu dutenean zubira bidean, Agirre ezagutu du.

Joxanek, dagoen lekutik, deitu egin dio.

Agirre, bere izena entzutean, gelditu egin da.

Gelditu eta begira geratu da, baina ez du Joxan berehala ezagutu. Jarraitzeko esan die koadrilakoei, segituan elkartuko dela eurekin.

Joxan, aurpegia ez erakustearren, uretara begira jarri da. Eta Agirrek, metro batera dagoela, harengana bueltatu du begirada.

Erabat harrituta, izena baino ezin izan du ahoskatu:

– Joxan Uriarte...

– Ez huen ni berriro ikusterik espero, ezta?

– Banekian Galizia aldean bizi hintzela, eta...

– Eta ez huela nirekin berriro topo egingo.

– Bueno, nork bere bizimodua egiten dik –Agirreren ahotsari beldur ukitua igarri zaio, enkontru honek ezer onik ekarriko ez diolakoan–. Eta? Ondo bizi haiz hango parajeetan?

– Ezin kexatu, egia esan... Aitaren heriotzak ekarri naik oraingoan...

– Ez nekian hire aitarena...

– Berdin ziok... Hirekin egoteak ere ekarri naik Bilbora.

– Nik dakidanez, ez diagu berba egitekorik...

– Gogoratzen duk Txerra? Txerra Zarate, nire lagun hura?

Agirrek gogoratzen ez duelako keinua egin du musuan.

– Utz nazak bakean, Uriarte, ez zakiat zertara datorren hau guztia... Ez zaukaat hirekin denbora galtzeko gogorik.

Joxanek alkandoraren samatik gogor oratu eta, ia arrastaka, uretara doazen harrizko mailetara jaitsi du. Agirreren zigarroa eskutik jausi da ur ilunetara. Ikaratu egin da Joxanen bortizkeriarekin.

– Baina zer nahi duk? Honekin arazoak baino ez dituk topatuko...–diotso Agirrek harro plantak egiten ahaleginduz–. Arazoak beti, hemen eta han... Bazakiat Galizia aldean ez haizela kontu garbietan ibili, eta boxeoaren lupetzan murgildu hintzela, hemen egin huenaren ispilua besterik ez...

– Nire biografia batzen ari haiz?

– ... eta puta beltz batekin bizi haizela... Hi beti lupetzan...

– Lupetzan hik amaituko duk, Txerrari egin hion moduan... Akordatzen haiz zelan esan huen aspaldi batean nire arrebak aldaba jatea gustatuko zitzaiala? Ba, orain edukiko duk aukera... baina ez nire arrebak eginda, ez, lazunek jango diate aldaba...

Ezker eskuaz Agirre helduta daukala, labana atera du patrikatik. Modu automatikoaz sakatu eta aho zorrotz eta distiratsua ipini du haren

saman. Eta gorrotoz begiratzeari utzi barik ebaki luze eta sakona egin dio. Astiro eta amorruz. Borborka atera da odola. Orro ustel eta zakar bat atera da Agirreren aho orain desitxuratutik.

– Lazunek jango diate aldaba, putakume hori! –esan dio Joxanek uretara astiro labain eginez doan Agirreren gorputzari.

Harmaila batean jesarri da Joxan, nekeak irentsita, gertatu denak barreneko indar osoa xurgatu izan balio bezala. Hutsik. Luze hartu du arnasa.

Begirada harrizko maila odolez zikindutik jaso eta, aurreko mollako barandan, La Najako arkupeetatik gertu, Bomba ikusi du, apur bat makurtuta, itsasadarreko ur ilunei begira. Besoak inarrosi ditu boxeolari ohiak, baten batekin eztabaidatzen ariko balitz bezala. Bombari begira garbitu du labanaren ahoa, astiro, inolako presa barik, patrikatik ateratako paperezko musuzapi batez. Odolaren gorriak ez dio dardararik eragin. Eta lasaitasunez uretara bota du musuzapi odolez zikindua, zigarroaren txustarra botako lukeen sosegu berberaz. Zarata handi batzuek hautsi dute isiltasun gorri hori. Erribera ka-

letik datoz zaratak eta oihuak. La Merced zubiaren paretik San Anton zubiraino, kalean zeharka eta gurutzatuta, kontainerretatik sua eta kea. Segundo gutxitan kale baketsua istilu gune bihurtu da. Farolen argiari suarena gehitu zaio. Erre usaina erribera osoan barrena zabaltzen doa. Eta gazte talde batzuk oihuka, Jon Bengoa aldarrikatuz, eta Sokhna gogoratuz. Gazte askok, musua estalita hara eta hona dabiltzan bitartean, hainbat tokitan moztu dute kalea... Eta handik gutxira, oso gutxira, Poliziaren sirena hotsak, ke pote eta pilotakaden danbada sikuak, etengabe jiraka ari diren argi urdinen aurrean...

Lasterketak, harriak, koktelak, oihuak... dena irakiten jarri da. Minutu gutxitan infernu bihurtu da erribera.

Oraindik ere odolaren gorria igartzen dut zure kostaldean... hauxe zara zu, gorri iluna... bat-batean Urbano Lugrisen berbak etorri zaizkio gogora, une egokian itzartzeko agindua baleukate bezala. Eta berba horiekin batera Bizkaiko itsasoaren irudi ikaragarri hura, beldurra eta mina margotu zituen irudi izugarri hura.

Eguna beroa izan da, sargoritsua, baina are beroago etorri da gaua.

Eta Jon Bengoa eta Sokhna, istiluetan ezin ozenago entzuten diren izenak.

Zatoz, meu coraçao, irakurri du mobilak iragarri dion mezu berrian.